EGUNA JEL

Lafi - aldijetan agertu biaf da sendotasuna. Jolas-aldian, edoñor da baikof ta adoretsu.

Lgo. urtia | 98'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. jorralla 25'gna. igandea | 15 eunen

EUZKO GUDA-OÑETAN

Euzkadi'ren azkatasuna idazten diardugu gure mendietan

Joaldirik indartsu ta bizienak Elgeta-Elorio aldean.-Gure mutillak, abertzaletasunak bakarik eragin daiken indaraz, oiñik-oin zaindu eta aldeztuten dabe gure lura. - Paxisten egazkin ugari mendietan. - Beste guda-oñetan.

ELORIO-ELGETA'N

Arerioak indartsu ta kementsu joten jarraitzen.

Ezin daikegu siñistu, arerioaren indar ori ukatu nai dabenik gure artean egon daikenik.

Len Otxandiano-Ubidea inguruetan eruan eban bide bardiña darabil oingoan be areriak alde onetan.

Gudarako dituzan arma eta trankulu guztiak batu eta guztiak oso osorik gure gain jaurti, goitik egazkiñak, egazkin talde ugaritsuak sua para-para zabalduten daben bitartean, gure mutilei lan egiten eragozpenduaz.

Egazkiñekaz edo egazkin barik arerioa zapalduko dogu, esaten da.

Euzkoen burdiñezko izateak ainbesterako indarra eukiko daben uste gara.

Baña lapetiko odol asko ixurita, gaztediaren edertasuna galduta.

Alderdikeriaren itxutasunak bakarik esan eragin daikez orelako esakunak.

Egazkiñik barik arerioari nekez, baña eutsi ez, gauf berak gordeten lurak ostutia?

Egazkiñik barik gabiltzan bitartean euzkotarok gure indarra baño sortzi bidar altsuago dan beste indaf baten aurka gudatuten gabiltzan kontua euki bear dogu.

Gizona gizonaren aurka, izkilu bardiñekaz, paxistak ezin dabe ezer egin eta eleuke oinka batik be auferatuko.

Bestera, gure mutilak gizurenen autzera, leoiaren indarraz gudatu al izango dabe, baña arerioa izango da beti indarraz gure gañetik dagona.

Euzkotarен izatearen sendotasunak eutsi al izango dautse. Azkatasun eta aberiaren zorion maitasunaz gogorturiko gure mutilen adoreak bidea garaztu al izango dautse.

Baña geiagorik eskatu ete lei?

Eutsi eta bidea garaztu!

Beste edren batek ainbesterik egingo ete leuke, gure gizan, gure erara gudatzekotan?

Zer egingo eben atzo paxistak Elgeta'n, zer egingo eben Kanpantzar'en, eta zer egin al izango leuke gauf edo biaf Elorio'n gure aldetik, gure mutilak zaintzen egazkin talde bat ba'geunka?

Frantzetaf izparkari batekin giñan arañegun.

Elorio ingurutan gure mutilak arerioari ipinten eutsen kemenaren indarraz afituta eta ulertu eziñik aurkitu gendun.

Europaz geratean bertan, ainbesterik etzala ezagutu agertu euskun, bilduf barik adierazi giñeikela ori.

—Zuen eskubidien egia eta indarra ontxe ikusten ez ezagutzen dodaz, iñoskun berak.

Nik ez dakit euzkotarен eskubidien mamiñik, nik ez dakit euzkotarен izatearen eskuturkorik, bana guda au amaitu ondoren euzkotarak azkatasunik eskatuko ba'lebe.

—Eskatu ez, artu baño. Jardetsi geuntsan. Eskaeretarako ez gagoz; azkatasuna irabazita dogu gaztediaren odolaz.

—Orelaxe da. Irabaziaren faltaz ez da izango. Azkatasunik irabazi daben erirk ba'da, zuen au ez da otzena izango, lenena baño.

Orelaxe agertzen dira gure kemenaren indarraz afituta eta ulertu eziñik, edo aintzaz txalotzen gure mutilen jokabidea ikusi eta ezagutzen dabenak.

Ainbesterañokoa da ba euren alegiña!

Atzo bertan bafiro alegin orek egin eta bere kemena agertu bearean aurkitu zan.

Arerioak jote jarraitsu eban. Biziro ta gaftsu.

Orañartekorik gartsuen jo ebala esango ba'geunke ez genduke guzurik esango.

Gure mutilak, beti legez, adorez beteta eutsiten alegindu ziran.

Arerioaren oinkada bakotxa odolez bustia zan.

Gizonak-gizon laga beaf izan zitun mendian, beste egunetan legez. Baña alzeratu ala egazkiñak an ziran gañean bafiro gure esiak suz beteten.

Eta orelaxe bifitan, lau aldiz eta zortzi bidaf.

Orelaxe bakarik, luf zatirik irabazi ba'eban lortu eban arerioak.

Orelaxe bakarik Kanpantzar'en zerbait irabazi al izan eban. Orelaxe bakarik Elgeta'ko etxeartean sartu al izan ziran.

Ez dagigun ukatu. Ez da orraitik lurra joteko be emon dogun izparau. Elgeta'n oraindik arerioa mindu, zigortu eta odoluztuteko toki ugari dogu. Tokirik onenak atan be.

Oraindik burukomin ugari artuko dau arerioak euretatik.

Gure mutilak ez bai'dagoz Mola eta bere jaraitzaliei arantza bako bidea lagatekotan. Azkatasunaren zaindariak ez bai'dabe bitxi edef ori galtzeko asmorik.

Odolez busti aren, azkatasun orek zindoki eta zoriontsu argi egingo bai'dau oraindik gure mendietan.

GURE MUTILEN ABERTZALETASUNA

Gure mutilen abertzaletasuna zenbaterañokua dan atzo ikusi genduzan ekintza batzuetan oartu al izan gendun.

Elorio'n zan.

Agintariak zertxobait atzeratzeko agindu eutsen mutil orei, egozan lekuetan txarto egozalako.

Gure mutilak bat batera erantzun eutsen, ezebela alderik egingo, aberia oiñik oin aldeztu gura ebela. Arerioak auferarik egingo ba'eban, euren gorputzen giñetik igaro bearko ebala.

Orelaxe talde batek lenengo. Gegoago saildi oso bat izan zan beste ainbeste egin eban.

Agintarien eskaera bizian egin beaf izan ziran gudariok makurtu al izateko.

BESTE GUDA-OÑETAN

Gora-berarik etzan egon beste guda-oñetan.

Eibar, Markina, Lekeitio eta Urkiola-Barazar aldetan paxisten egazkiñak ibili ziran. Ikusketan egiten lenengoetan. Azkenengoetan bonbak jaurti ebezan, baña kalterik egin barik.

Lekeitio'tik Ondarroa aldean ikusi zan batza bat gogorki suagatu zan. Paxistak alde orreitan gudariak batzen diarduela esan lei. Eta gure suak aguf egin eutsenian, ainka jokuan asi zirala esan beaf.

Orduña ingurutan arerioak lan ugari eban. Ez paxistenak, gureak baño.

Egun guztian ekin eutsak, ixildu barik, arerioaren esiak suagatzen. Berritin'ek amaika suaga artu ebanan bere kolkoan!

EUZKOTAÑA?

Lloyd George'k diño...

Londres.—Lloyd George politiko ospatsuak agerpen batzuk egin ditu Euzkotarra dala esan dau, euzkotar endakua.

"Bankworth" ontziko kapitanagaz aztuemonetan dagola esan dau. Ontzi ori Inningham'go portutik urtetako da Bilbao'rako janariz beteta. Orez gañera janariok emon beaf dituezan langile-bazkun eta euzkotordezkariagaz alkartuta dago.

Janarietako beteun eta beregatamar libra esterlina emon ditu politiko onek.

EGUN LATZETAN

Gure eginbeaña

Euzko-izatearen anditasuna iñoiz baño argiago agertzen yaku.

Zoritxaf eta estutasunetan ezagutzen dala izate baten bikaintasun eta antasuna esan daroe. Bake aldi eta egun nasaietan barik, lafi eta estuetan igarten dala izate baten zindotasuna.

Gauf, gure izatearen anditasuna eta zindotasuna zenbaterañokua dan igarri al izan dogu. Gure egiaren indarra gauf ikusten dogu bizi, argi ta zindokl.

Mendiak gaztedi loratsuaren odolez gorituta, luf baketsuak su ikaragarrin gafetan, baserri baketsuak berun likoz zigortuta dakusguz.

Aja ta be mendiok eta lurrok eta gure izatearen ezaugafiok iñoiz baño maitiago, iñoiz baño kutun eta begira afiago iruditzen yakuz.

Iruditu bakarik ez. Maitasun zindua ekintzekaz agertu biaf dala esan daroe. Guk gure ekintzekaz agertu izan dogu gure biotzen bafian gafetan dagon aberi maitasuna.

Arerioak, bere indaf guztiak batuaz, bere gofotoaren zatafa guregain jarkiten daben uneotan, gu iñoizkotik zindoen agertzen gara, iñoizkorik lotuen gure aberiaren ezaugafiei eta gure biotzen sinismenei.

Euzkadi gure biotzetan saftua dogu; Euzkadi'ren azkatasuna gure amets biurtu da. Biotzen maitasun eta amoren mamin ori ez dira aitzaki ustel eta maitasun otz. Gure mendietan egunero ixuritzen dan odola agerkarik bizi-n. Gure gaztedien bizitza garbi ta zinduak, aberiaren oindian eskiñiak itzan diranak, maitasun ofein sustafa azalekua ez danaren ezaugafirik zindoen.

Ez gendun gefarik nai. Iñoiz bere ez gara gefazale izan. Gure endea beti izan da gefearen arerio. Begiratu edestira. Baña gefeagaz joten gaituenak gef agaz menperatuten jakin dogu gaurafte. Indafez oinperatu nai tzan ginduezanak, indafez menperatuak izan ziran.

Gauf beste ainbeste jazoko dan uztetan gara. Mendietan jausi dan gazteriari odolaren ofetarako itxaropenik emoten dausku.

Mendietan dan indafak atzekoen laguntzea biaf dau ofattik. Atzean beti auf eta beti gertu egotea eskatzen dau auf ko jokabideak.

Gauf iñoiz baño gertuago, arerioak gauf joten dabelako gogofen, bizien eta indaftsuen. Uno orotan gertu egotearen biafkuna ba'dogu, gauf iñoiz baño senduago lotzen gaitu biafkun ofek.

Gure mendietako mutilak adore ta indafa beaf dabez. Adore ori atzean izan ezik ez dabe iñun bilatuko. Atzeak azkatasunaren kezkea agertu beaf dautse, eurak agertzen daben antzera.

Aufeokoak irabazitako azkatasuna, atzekoak sendotu eta indaftu beaf dautse. Of gure eginbeafa.



Del Rio egazkinlari adoretsu ta ospetsubaren gogo-aldez atzo ospatuzan eleizkixunetik urtekeran egiñiko argazkia dogu au.

Odolezko loratzak

GALDAKANO, ERANDIO, LEXONA TA GETXO SUAGATU ZITUZTEN ATZOKOAN PAXISTAÑ BASATIEN EGAZKIÑAK

Emen genduzen atzo ere paxistaf basatien egazkiñak. Gaurdaiñokoan ixuritako ainbat odolez ez dira ase paxistaf ankerok. Guda-oiñean ilotzik jausitako odolari eder iritzi diote, baiña guda-atzean paketsuenik-paketsuen eta efugerik-efugeen diran aur eta emakumeen odoj garbiz ase nai dute euren basati-egaria.

Bi aldiz agertu ziran atzo. Sei egazkin, aidea ufaka, bilduta sartu-erazotzeko naikoa dira. Sei egazkin paxistaf, gurerik ikusten ez ditugunean, naikoa ta geiegi geure buruak ikaratu ta basterak zatitzeko. Ondo dakite egi gafatz ofen befi Galdakano, Erandio, Lexona ta Getxo'k. Argi ta garbi esango liguteke atzo efiotan ildakoak, zutundu ta itz egiterik balute. Baiña ixuritako ainbat odoj gazteren iraki ñak ere badasaigu beste o enbeste, ba-dagikigu egin itz.

Atzoko egi gafatz, samin, labur baina sakona auxe da: Aitatuzako efietan paxistaren egazkiñak bonbak ugari jaurti zituzten eta UGARI IL ETA ZAURITU. Ildakoaren oroiz samiñez lotu gera eta, esatea gordiña bada ere, oraindik odolez jausi bear diran edo degunen geroari gagozkio gogo-ufatuz. Eta bitartean, kolkoan gorde eziñez, auxe galdetu nai degu:

Noiz ikusiko ditugu gure egazkiñok?

Isabea eta Arañoa

Ixabeak arañoari egaraz erakusteko eskatu zion. Onek baña eskatzen zuena bere izadian oso etzekion gauza zala oartu zion. Baña arek ostera ere etsi-etsi eginda eskaerari ekiten zion. Artu ba atzaparetan eta goi-gorañoa jasorik, bertatik bat-batean laga egin zuen. Ura ordea arietan jota, osoro puzketan kreskatuta gelditu zan.

Ipuintxo onek erakusten digu, leietan azkaragoak diranei entzuten ez dutenak bere buruaren kalte diradela.

ERAKUSPENA

Gaztetxoak zarraen esanai lotza aundia bear diote. Euren esaera sentzudunak ikasi ta biotzean gordeaz, batez ere eurai bizitza lotuaz, bide zuzenean ibiliko dira, eta eragozpen danak garaituaz, zoriontsu azken onera elduko dira.

Egazkiñak nai doguz!

Atzo, areyua geure gibelian dogunian kezka ta urduritasunak ebertuten dabiltzanetzaz jardun gintzazan, orela ikuak negargafi ta lotsagafi zirala ageftubaz.

Gauf, idazkun ganorabakuak bastaf gustijtan inkau daroezanetzaz jardun biaf gara. Leyotik-leyora izki-aundidun zapi zafak-eta jafi-oi dabezanatzaz.

Jaunak: ¿Zetako ainbeste idazkun? ¿Zetako ainbeste idazkun-tremen? ¿Areyua ikaratzeko?

Ori ezta bidia gudea irabazteko. Gudea ezta irabazten izki ta jardun "terriblejekaz", ixil eta zentzun iz gertauriko egintza efimiekaz baño.

Aldijoik, axe-utsezko pelotak betetzen ibiltekuak eztoguz. Oñafi-sendoz ornidurikо asmo ta erabagijak aftuki, areyuari jarkitekuak baño.

Atzo "Con aviones o sin aviones aplastaremos al fascismo" iñuan idazkun ikaragafi bat ikusi gebalarik, geure burubari galdeka jafi gintzazan: ¿Zer dala-ta baña "sin aviones" ori? ¿Norbafen abindu betegia estalduteko?

¿Efiketa naskagafi baten egari zilala asetzeko bidia loftuteko?

¿Ez? Orduban... ¿ez litzake egokiago, egazkiñak biaf doguzala ta bialdu daikezamari eskari ori egitia, egazkin barik be irabaziko dogula esatia baño?

Egazkin barik be irabaziko dogula?

Geu be ofetan gara. Euzkotaren sendotasuna noragiñokua dan iñok baño obeto dakigulako. Of tarako baña, baj-dakigu be, egazkin barik, geure gastedi kementsuba odoluztu biaf dogula, geure landegi ta edefgafi gustijak bifinduta ikusi biaf doguzala, geure guda atzintan doguzan atso-agure ta umiak galtzorijan ikusi biaf doguzala. Eta guk, orixe galazo gurn. Geure geuriak diralako. Euzkadi'ren zatijak diralako.

Egazkiñik eztagola? ¿Nundik ikafi eztogula? Orela ixaki, ezkara adoregetuko; geure adore ta kemenek bafituko ditugu, areyuak bere amenkefak betetu eztaizantzat, baña egazkin bako egoerea aldeztu daroanaren aufka gagozala jakin beye, gazbako idazkunak jaften aldija galdu daroenak.

Egazkiñak gura doguz. Egazkiñak biaf doguz, efiketa ta azpikeri guztijak baño ongafijago doguzalako.

Idazkun ganorabakorik, eztogu biaf. Egazkiñak biaf doguz



BILBAO'KO izpaŕingiak

"Euzkadi"

Euzkadi'ko gudauŕkeatzaz diñardu.

Arerijuak, Euzkadi'n, uste ixan ezeban esija idoro ixan dabela diño, Euzkadi menpetubaz, gudeari beste era bat emotia ixan ei-da, ba, arerijuaren guda-amesik -ameşena. Euzko-gudarijak, ba, arerijuaren eten bako eraso gogoŕai, esija be ala koxe gogoŕa iminten ei-dautse.

Orain aŕteko poŕot-egile gustijakaz be, baña, Euzkadi betuteko egaŕi bixiz bixi dan arerijua, ez ei-da beinguan geldiŕuko. Oldaŕtuten jaŕaŕuko ei-dautsa, mutilak-mutil erail eta sendijak sendi ondatuten.

Paxiotaŕak euren zorukerija ondo ordainduten ei-dabe. Elgeta'n aftu ixan eben zigoŕa ixan ei-zan ordañetako bat.

Zigoŕ arek, paxiotaŕai, ondoren txaŕak ekaŕiko ei-dautsez, biaŕba aldi asko igazi baño len ikusiko diran guda-ondorenak.

Euzkadi'ri oldaŕtuteko ta guda-atzetija koldaŕtuteko be, guda-era ta guda-izkilu, gura ixan dauzan beste ixan ei-dauz, arerijuak, eta gura ixan dauzalakuak: guda -egazkiña, gudontzijak eta abaŕ.

Gauza gustijen gotik efi-azkatasuna ta efi-eskubidiak aldeztuten dauzan efijarentzat, baña, guda-era gusti oŕeik eta geyago ba'lira be, alpeŕik ixango ei-litzake, zigoŕ-era gustijak baño senduagua dan efi-zaletasunaz sendotuta aurkitzen dala -ta. Euzko-efija bere burubaren jabe ei -da. Eta aldeztu be urduritasun barik aldeztuko ei-da: zer egiten daben dakijala.

"Lan-Deya"

Lenengo idazlana, Egileoŕtaŕ Genar'ena da, ta Del Río'taŕ Pilipa egazkintzain ospetsubatzaz idazten dau.

Euzkotaŕ ospetsu onek, euzkotaŕen bixitzeak aldeztuteko, beria berein aldiz afiskuban imiñi ixan dabela diño.

Erijotzearen eguetan ibili ixan ei-da beti. Eta azkenian be, soñari itsatsiŕa erabili ixan dauan erijotzeak eruan ei-dau geyago etoŕiko ez yakun lekura.

Bilbao gure uri jasaŕtu au, beste iñok ez lez aldeztu ixan ei-dau Pilipa egazkintzañak. Uri gaxo au ondatuten etoŕitako sei egazkin luŕera jauŕti ixan ei-dautsaz arerijuari, ta beste asko uxatu.

Egazkintzain au goi-gora jasoten dau. Goyan bego, ba.

"El Liberal"

Astija galtzia, gudauŕkea galtzia dala, diñotso Mola'ri. Durango'ri basati-antzo oldaŕtu ixan eutsan Mola, baŕiz, astija galtzen ei-dabil Euzkadi'ko gudoñetan.

Astija alpeŕik galtzen ibilteko-ta baño, asti gitxijago ei-dauko Mola'k, baŕiz. Auŕera edo atzera, egin biaŕ dauana arin egin biaŕ ei-dau arek.

Durango suagatubaz Otxandiano'n egin ixan eban itxumustuko auŕerakadea, gudea irabazteko añakua baño txikijagua ixan zala diño. Eta gura dabezan guda -izkilu-era gustijakaz orniduta dagozan -aŕen be, Otxandiano'n egin ixan eben auŕerakadea baño besterik egiŕerik ez ei -dabe loŕtu.

Elgeta, Eloŕijo ta beste gudoñetatik be, Otxandiano'tik oldaŕtu ixan eben indaŕ gustijak eta geyagogaz oldaŕtu ixan daben aŕen, gure guda-esijak apuŕtutia loŕtu barik geratu ixan ei-dira. Eta ori, beŕiala auŕeratu biaŕian daguan Mola'rentzat, astija galtzen ibilŕia ei-da.

"Euzkadi Roja"

Lenengo zeŕenda bijetan Del Río'taŕ Pilipa egazkintzañaren erijotzeatzaz idazten dau. Goraiben aundijak egiten dautsaz.

Beste erdiko zeŕendaetan, Eloŕio'ko gudaketa gogoŕatzaz deragoyo. Gudaketa au, gogoŕen aŕtian gogoŕenetariko bat lez, agertuten dau. Paxiotaŕak Eloŕio aŕtzeko dauken egaŕija, neufiiik kirijuak laŕ aŕtegatu barik, odol-otzian eta zer egiten daben dakijela erantzun baño. Euren oldaŕ-aldijetan, Euzkadi'ri dautsoen maŕetasunak erazota, ¡ez dira auŕeratuko!, esaten ei-eben.

Paxiotaŕak, oinguan, gura daben bestian auŕeratuten gaitz ixango ei-yake ixan be.

"Tierra Vasca"

Bilbao'ko kaya dala-ta England'ek erakutsi ixan dauan koldaŕkerijatzaz idazten dau. England'en afokerija, lantxubago Etiopia'k eta oraiñ Bilbao'ko kai-auzi onek, apal-apal eginda jaŕi ixan dabezala diño.

Englandaŕak buru-gordetzaliak ei-dira. Eta euren gauzak laŕ ondo gorde guriak eruaten ei-dauz eruan be egiten dabezan koldaŕkerijak egiten.

Baldwin eta onen lagunak dira koldaŕ-antzo agertu ixan dirala esan gura dauskunak. Baldwin ez ei-da baña England, onen jaurlaritza-buruba baño. England'ek beste batzuk be ba-ei-dauz, ba, egija ikusten dabenak, eta aldeztuten dabenak: auzi onetan Baldwin'i ta onen lagunei egijak agertuteko adoria ixan dabenak.

"Euzko-Langile"

Paxiotaŕen gudauŕkeak poŕot-egin da bela diño. Eta euzko-itxasuak, baŕiz, alde gustijak daukazala azke, ta ondo zainduta.

Eta au gustijan onduen egiztuten dabenak, egunotan Bilbao'ko kayara eldu ixan diran englandaŕen lau ixontzijak ei-dira. Iŕi-itaunau zuzenduten dautso, gero, Eden jauna'ri: "¿Onetzaz ezer jakin ete-dau, jakin Eden jaunak?"

Beste zeŕenda baten, Toledo'ko Goma jaunkordumaren idazkijari samaŕak agertuten deragoyo. Euzkadi'k beria dauan bixitzea aldeztuten dauala diñotso. Gero beste itaunoik zuzenduten dautsaz: "¿Uskurtza-jazarkundia?" "¿Eta Hitler'en uskurtzea?" Salakuntzea egiteko, zuztraya biaŕ dala diñotso.

ASTOA ETA LIOI-LARROA

Astoa, lioi-laŕuz gaiñetik jantzita, lioia bera denai zirudien; eta bai artzaiak, bai artaldeak ere beregandik igesik zebiltzen. Olakoen batean baña aizeputzak laŕuori egatu zuen, eta astoa eraŕtzia asto gelditu zan. Au ikusiaz denak bat-batean zalapartaka makila ta zigoŕakin bizkaŕa ederki astindu ta berotu zioten.

Beartsuak eta ezikasiak ba zerate, etzazute ez aberatsen ez jakintsuen antzik zuzendu; bear ba'a ba, zuen lepotik paŕ egiñez gaiñera, galbidean aŕkituko zinduzteke: ba besteren̄a ez ta gauza egokia.

ERAKUSPENA

Gure Esaera-Zar batek digu: "Aita -asabai utzi, ta gaitean on beti". Au da: euren ontasuna geureganaturik, egipenez euren onbideak geure-geuriak biurtu ditzagun.

Emakumiaren zoritxaŕa

Zeure kolkorako ez dogu, ene emakume maitia, iŕaune au, iñoz egin: "Zek zoritxartu negike?" Iñoz egin ez ba-dautsazu zeure baŕuari iŕaune au, jaŕaistazu.

Zoŕijona...! **Ori itzaren gozua. Zoritxaŕa...! Ori itzaren gaŕatza. Zoŕijonaren jaŕai gabiltza gustijok eta zoritxaŕari igesika. Eta egia esan ez dogu biaŕ geunkan astiz gauza gaŕan tzitsu au biotzaz gogartu.**

Zek zoritxartu negike...? Ogasunak galtziak? Egija esan, ogasunak ainbat gauzatarako giltzak dira ludijon, baña ogasun barik be emakumia zoŕijontsua ixan daike. Zenbat emakume txiro ta biartsu eza-utzen doguz zoŕijon gentatsuz inguratuta...! eta baŕiz, zenbat emakume aberats okitu zoŕi-n-egaŕiz...!

Zek zoritxartu negike...? Jaungoikua'k emon daustan argitasunaren zati bat galtziak? Buru-argitasuna gauza edeŕa ta onuratsua da, ezin ukatu; buru-argitasunak zoŕijon-ate u-aŕijak daukoz ludijon zabalik Baña ezta, buru-argitasun galtziaz be enaz zoritxaŕtuten. Buru-argitasuna saŕi askotan galzoŕija da; afokerija ren iŕurburua... amaika laprasten zijua...

Zek zoritxartu negike...? Neure soin-edertasun eta liraiñtasuna galtziak? A, emakumiarentzat edeŕtasuna ta liraiñtasuna bitxirik ikusgaŕijenak dirudije. Emakume edeŕa... emakume liraña... Oŕek itzen zoragaŕijak...! Emakume edeŕ ta liraña gusti-aldunak dira ludijon. Eta oŕaiño, edeŕtasuna galtziak be ez dau zoritxartuten emakumia. Ixan be, edeŕtasuna ta ontasuna gauza bi dira ta edeŕak diran ainbat emakume, ez dira onak; alderantzira, motzak edo itsusijak diran emakume asko onak dira. Eta emakume edeŕ utsak nekatu egiten dau. Eta zer, edeŕa ta ona batera izanda be? Edeŕtasunak iges egiten dau...

Zek zoritxartu negike...? Neure maitiaren edo neure maitien maitasuna galtziak? Ori atsekabiaren gordiña... Maitiaren maitasuna galdu... Neure bijotza negu asaskau ixan oi -doŕazan maitiaren bijotza galdu... Bere maitasunaren beso beruetan kuŕukatu naben kutuna galdu... Ori otza emoten daben gogaŕkun iŕun onek... Baña... egija esan, galtze oŕixek be ez dau emakumia zoritxartuten galdu ezin daiken maiŕemindua daukolako... geure maitasun gaŕetan bijotza irakiten daukan bijotz jaunkoya...

Zek, zoritxartu negike? Zek...? Ba -dakit, bai! Jaungoiko-adizkidetasuna galtziak, emakume-bijotzaren azkensari ikusgaŕija dan Josu maitia galtziak. Ogasunak... buru-argitasuna... soin-edeŕtasun eta liraiñtasuna... maiŕe-ilkoŕa... zer dira? Josu'k bere bijotz jaunkaiŕik jaurti ta ludijon izatia artu daben irazaki txiruak...

Jayon dagizun kutunkiro bijotz -kutxan geure zoŕijon osua dan bitxi ikusgaŕi au.

MAITE.

GUDA-ARGAZKIAK

Gure erantzupenaren astuna

Gudearen beaŕa

Gizarteak aldatu edo iduleztatu beaŕa izaten dau aldiz-aldi. Izadian be, aldatu beaŕoi somatzen da; aldatze ori zabaŕak kanporatu ta izadi atalok garbitu daitezan egokia izaten da.

Gizarteari, be, oxiñarena gertetan yako; beingoan basaz ta zikiñez bete. Ujolderik gabeko negurik ez da izaten eta, ujoldeok eragotzi ezin daikenez, oxiñeko zabaŕak aldiz-aldiz garbitu eginbeaŕ, oxiñoi garbi euki nai izan ezkero.

Alegiñik aundienak eta ardurarik getenak erabiliaren, gizona-gizon danaŕe beti izango da zabaŕa ta garbitu beaŕeko zerbait gizartean. Baterikо ez ba-da, besteriko matxinada edo aldezeau beaŕa beti izango da.

Matxiñada guztiak txaŕak diranik ezin esan daike. Matxiñada edo aldatzeoi zuzendu beaŕa da: neurtz egin beaŕa. Matxiñadea zuzendu ta neurtu...! guzuŕa dirudi. . . .

Edozein aldatze nai idulaztze ezin izan daike gizartearen onerako: gizartearen onerako izan beaŕ leuken aldatzeoi, gizarteaŕen ondamendi biurtu daike ta orixe da guk matxiñada onetan eragotzi beaŕ doguna.

Matxiñadea bidez zuzentzea ta neaŕiz egitea gagoku guri. Egiz, egingo astun eta latza da gureau izan, be. Geure erantzupenaren aztuna ta eginbeaŕaren latza gomutaratu dagiguzan.

Geure jokabide erantzupentzu onetan, begien aurean beti-beti izan bekigu guda onetan sartzera beaŕtu gaituan egingo-ikuŕa: Jaungoikua ta Lege-Zaŕa'ren artu genduzan izkiluak, eta Jaungoikua ta Lege-Zaŕa'ren areriorik dogun-arte, ez doguz lagako aspaldi eskuratu genduzan izkiluok.

Jaungoikua ta Lege-Zaŕa'ren areriorik dogun-arte, zutik, euzkotaŕak Besterik egitea, geure izatea ukatzea dogu ta guk geure izaterik ez dogu ukatuko.

Egingo-ikuŕ bikoitzaren alderdi bat lortu-ostean, besteari jaŕmonik ez egitea, ez litzake izango gizonari yagokonez jokatzea; oŕek gaiñera egingo-ikuŕ bikoitzoi, ezin banandu daitezke; egingo-ikuŕ atal batoi beteta, bestea laga ezin egin daike, batoi beteta al izateko, besteoi, be, bete beaŕa dogu-ta.

Ainbat odol goŕi ta garbi edeŕ izuri ostean, geure asmuoi ez lortzekotan zein pozbide ta buŕuka gogo izan daikegu?

Aspaldi somatu genduan gizarte garbitu beaŕa. Garbitze ori indaŕkeriz egitearen aldeko ez giñan, onez egitea nai genduan; ori iñoenen esanei ez yakoen jaramonik egin eta ona zer etoŕi yakun.

Geure erantzupenaren aztuna saŕi gogausnartu beaŕean gara. Gure egingoa bete daikegun, gogo-indaŕ aundiaren premiña izango dogu ta gogo -indaŕ ori apurka-apurka lortu ta pixtu egin beaŕ dogu.

Gudan zergaiti asi giñan, ez daigun aztu. Besteak izuritako odolaren saria jasota, gu ao betz agiñagaz geratzea genduke Jaungoikua'ren aurean .? *mingaŕi izango litzkigu ta odol oŕen erantzupena geuk leporatu beaŕa izango genduke Jaungoikua'ren aurean.*

Gure jokera ta matxiñadeari eustea egingo-ikuŕak zuzenegiten dausku. Elburua lortzeko bide okeŕ ez da gureol. Elburua ez yaku bideen zuzenegile batzuk okeŕ uste dabenez: bide zuzenez elburu zuzena lortzeaŕen gabiltz.

Aukeratu dogun bide ori guentzeka lagateari, ondo alderitzazu?

Auŕera euzkotaŕa! Bide laŕzari eldu dautsogu; bide erdian kukildu egingo gara? Ez. Ezetz.

Geure egingo-ikuŕoi guztik bete arteon zutik, euzkotaŕ, ta armaŕik ez laga; oŕain baŕuekin buŕukatzen gara ta preminaŕik izaten ba-dogu, gero beste batzuekin, be, bardin buŕukatuko gara.

Zuzenaren-alde dabilanak saŕi izaten dau buŕukatu beaŕa. Guk, baiña, nagikeriz okeŕ edo txaŕakin ezin buztartu geinkez, gure areriok besterik diñoenaŕen.

Zuŕik eta ernai, ekindakoari azkenerarte eutsi.

Ba-genduan Euzkadi onetan, be, garbitu beaŕa, baiña garbitzen asi gara ezkero, guztiz garbitu nai dogu geuk osatzen dogun giza-batzau.

Aldi aretako euzkotaŕak bide erdira ziranean molz-egin ebenik guri buruz esan al-izateko biderik ez daigun iñori emon.

JAUNGOIKUA ETA LEGE-ZAŔAren alde buŕukatzeko zutunik eta adoretsu beti euzkotaŕ.

TXINGAŔ.



Aberŕtzaletasun Aberŕtzalekeri

Aberŕtzaletasuna Yainkoak Berak agintzen digun bete-beaŕa da. Bakoitzak bere Aberŕia maitatu beaŕ du. Ez nolanai, Jaungoikoak agintzen dion gisan baizik; goimaitasunez beaŕ du bakoitzak bere Aberŕia maitatu. ¿Zer da Aberŕia goimaitasunez maitatzea? Aberŕia azken-elburura. Yainkoagana zuzentzen aalegiñak egitea.

Areago; bakoitzak, bere Aberŕia maitatzean, ez ditu besteren eskubideak ikutu ere egin beaŕ.

Bakoitzari berea ta bakoitza berean.

Oŕa oŕ egizko aberŕtzaletasuna; Yainkoak agintzen duna. Bestelako aberŕtzaletasunak gezurezkoak dira. Bestelakoak ez dira aberŕtzaletasunak, aberŕtzalekeriak baizik

* * *

¿Zer dakuste, ordea, gure begiok?... Etsaiek, España'ren izenean, españaŕ-aberŕtzaletasunaren izenean, gure euzko-aberŕtzaletasuna zapaldu, eraustu, deuseztu egin nai digute.

¿Nola leike ori? Beren aberŕtzaletasuna egizkoa baldin ba'da, eta gurea ere egizkoa baldin ba'da, nola leike biak elkaŕen aurka izatea

Egizko aberŕtzaletasunak ez ditu besteen eskubideak ikutu ere egiten. Bietatik bat, beraz, ezin da egizkoa izan, ez eta bidezkoa ere. Bietako bat gezurezkoa da, bidegabezkoa. Bietako bat ez da aberŕtzalekeria baizik.

¿Zeñena ote? ¿Gurea ala berena?

* * *

Guk Euzkadi dugu Aberŕia; euzko-aberŕtzaletasuna gurea.

Gipuzkoa'n, Araba'n eta Naparoa'n sartu zazkigun etsaiek España dute Aberŕia; españaŕ-aberŕtzaletasuna berena.

Guk Euzkadi zoriontsu egitea dugu asmotzat. Ez diogu ortarako iñoŕi ere indaŕ-egiten; ez dugu iñor ere gure asmoetara indarka naŕeztu nai. Amets txoroa litzake ori! Aberŕtzaletasuna ez bait' da indaka zabaltzen. Aberŕtzaletasuna baŕne-muiñetan sortzen dan landare onen eroak.

Euzkotaŕei indaŕ - egiten ez ba'diegu, atzeŕitaŕei zer esanik ez. Atzeŕitaŕek ba dute aberŕia; maita bezate beaŕ duten bezela ta nai duten aña. Oŕ konpon! Bakoitzari berea ta bakoitza berean.

Guk egin dugun au etsaiek ere egin izan ba'lute; Gipuzkoa'n, Araba'n eta Naparoa'n sartu gabe España'n gelditu izan ba'lira; gure eskubide guziak lurperatu ta gu geroei bizia kendu asmoan ez ba'litzatzkigu etoŕi, ez lirake orain gure aberŕtzaletasuna ta berena elkaŕen aurka izango. Etsiek, ordea, ez dute gure odola ikusi ere nai... garbia izaki nunbait... Berena, beŕiz, odol beltza... mairu-odola. Iduriz eta gezurez josia duten erlijio oŕen izenean, españaŕ-aberŕtzaletasuna nai ligukete euzko-biotzotan saŕ-erazi... Ezin ordea!...

Eta gure egizko-kristautasuna ta aberŕtzaletasunaren aurka deus ere ezin dutela dakustenean, goŕoto bizia digute, efai -efaitik goŕoto, ta gure Euzkadi osoro zapaldu dute gogo.

Auxe egia; alderdikeri guzien gañezka berez dan bezelaxe ezagun dugun egia.

¿Zeñena, beraz, gezurezko, bidegabezko aberŕtzaletasuna? ¿Zeñena, beraz, aberŕtzalekeria?

Garbi aski dager.

* * *

Aberi=aba-efi. Aba=aita, "sendia".

Au da egizko aberŕtzaletasunaren oñaŕirik sendoena, bidezkoena; oñaŕi au bait' da odolari geien dagokiona.

Eta auxe da ere gure aberŕtzaletasunaren oñaŕia. Ikus; edesti-aurean, aspaldi -aspaldian, antziñaren antzíñan, euzko -sendien elkarteak euzko-efia sortzen du. Euzko-efi ontan sendia da beti guzien ituŕi (abenda, elea, izaera, oiturak, gizartekoak, politikakoak, luŕaldea, azkatasuna ta abar). Euzko-efi onek sendia ta oñaŕi. Oñaŕi iraukoŕa bermatan!

Gure efiaren gisan beste efi asko ere sortu izan ziran. Oŕ ibili ziran aŕo-aŕo aundikeriz baztefak naasi naiean. Gero zer? Itzali suntzitu egin ziran! Beti-betiko suntzitu!!!

Euzko-efia, beŕiz, Eusko-Aritza beti sendo, zindo. Urterik urte, gizaldirik gizaldi, euzko-efiak bat ere galdu gabe garbiki gorde ditu asieran zeuzkanak. Garbi gorde du odola, garbi elea ere, izaera, oiturak ta abar

Egizko aberŕtzale geranez ok guziak maitatu ta gerorako iraun-erazi beaŕ-ditugu. Yainkoak Berak eman digu ortarako eskubidea: sortzeko-legez agindu bait' digu.

Azkatasunik gabe, ordea, ezin ditugu ok guziak beaŕ bezela maitatu ta gerorako iraunerazi. Azkatasuna nai ta naiezkoa dugu. Euzko-efiak asieraren asieratik zeukan azkatasuna; etzeŕitaŕek azpikeri nazkagaŕiaz lapuŕtu ziotena; gauŕ egun ere etsaien atzapaŕetatik oŕen kementsu zaintzen ari gana; Yainkoak ipiñi dion bidez azken elbururañotzeko beaŕ duna: euzkotaŕok, euzkotaŕ geranez, Yainkoak biotz baŕne-muiñan iraŕi digun sortzezko-legez, odol-eskubidez, azken elburuño eltzeko beaŕ dugun azkatasuna.

Oŕa oŕ egizko aberŕtzale geranez nai duguna. Oŕa oŕ gure aberŕtzaletasuna. Mamiz eta azalez kristau-legeak agintzen duna: egizko kristauari dagokiona.

Ez dugu bestexen luŕaldetan indaŕ-egitera joan beaŕik. Ez digu gure euzko -aberŕtzaletasunak oŕelakorik eskatzen

Yainkoak efi bakoitzari bide berezia ipiñi dio azken-elburura eltzeko. Efi bakoitzak besteen bidetara sartu gabe ibili beaŕ du.

Orixe egin du ta nai du egin bet euzko-efiak. Paketsu etxe-barnean eta efi guzien adixkide.

Bakoitzari berea ta bakoitza berean.

¿Ez ote da au, beraz, odol-legeak eta kristau-legeak agintzen dun aberŕtzaletasuna?

¿Bai ote da aberŕtzaletasun onen zurka eskubidez jaikiko danik? Nor ote?

* * *

Fatxismoa, ondikotz! Deabruak berak sortutako fatxismoa!

Oŕ datoŕ gure Aritza luŕperatu asmoan. Euzko--odol garbia lokaztu ,, Euzkera suntzitu... Euzko-oiturak ondatu... Euzko -sendia bifindu... Gure gaztedia usteldu... Euzko-izaera jatoŕa bein betiko deuseztu.

¿Noren izenean? España'ren izenean, españaŕ-aberŕtzaletasunaren izenean (España una, España grande, España libre! Viva España! Arriba España!) Areago oraindik, Erlijioaren izenean (Por la Religion y por España! Viva Cristo Rey!)

¿Zein ote da Kristo ori? Gurea ez beintzat. Gureak ez digu oŕelako bidegabekeririk erakusten, goimaitasuna baizik.

Aundikeri, berekoikeri, ustelkeri, erailtza, lapuŕketa, gezturkeri, goŕoto...

Gure Kristo'k ez digu iñoiz .re oŕelakorik erakutsi.

"Etsaiok, entzun! Zuen Kristo ori egizko Kristoa baldin ba'da, gu, euzkotaŕok, ez gera kristau, ez eta sekulan izango ere!"

¿Eta etsaiak zergatik datozkigu, España ta gezurezko Kristo oŕen izenean, euzko-usai daukaten gauza guziak eraustu asmoan? ¿Zergatik ote?. Garbi aski dager...

Ez bait'gera españaŕak; ez bait'dugu mairu-odolik; odol-garbia bait'dugu; ez bait'dugu jauntxokeririk maite; demokrazia, eŕia, langiletasuna maite bait'ditugu; langileen eskubideak zaintzen bait'ditugu; ez bait'dizkiogu geren buruak diruari saldu nai; Eŕoma'tik datoŕzkigun irakaspenak zabaltzen bait'ditugu...

¿Zergatik gure aurka? Garbi aski dager. Odol garbia dugulako; eŕia ta langiletasuna maite ditugulako; egizko abenda, egizko elea, oitura garbiak ditugulako; "egizko euzkaltzale, egizko aberŕtzale ta egizko kristau" geralako batez ere. Besterik ez.

* * *

Itz batez. Etsaiek, españaŕ-aberŕtzalekeriaren izenean, gure euzko-aberŕtzaletasuna eraustu nai digute. Ortarako gu gerok erail naj gaituzte.

Guk, beŕiz, euzko - aberŕtzaletasunaren izenean, ez dugu gure biotzetara españaŕ-aberŕtzalekeririk sartzen utziko (gaitza besterik ez bait'dio gure Aberiari erakaŕi). Baña ez ditugu ortarako besteen bizitzak ikutu ere nai, ez eta iñoŕi ondar-egin ere; bakoitza berean uzten dugu beti.

Etsaiek, españaŕ-aberŕtzalekeria ta gezurezko erlijio oŕen izenean, euzko-sendiak biŕindu, euzkotaŕok sakabanatu ta euzko-apaizak erail eta erbesteratu egiten dituzte.

Guk, beŕiz, euzko-aberŕtzaletasuna ta egizko kristautasunaren izenean, euzkotaŕoi Euzkadi, atzeŕitaŕ atzeŕi- ta bakoitzari berea uzten diogu.

Españaŕ-aberŕtzalekeriak, bizi ta iraun aal izateko, besteen aberŕtzaletasuna ta eskubideak zapaltzen ditu.

Gure euzko-aberŕtzaletasunak, ordea, bizi ta iraun aal izateko, ez du besteen eskubideak ikutu ere egin beaŕik.

Etsaiena "aberŕtzalekeri" bait'da.

Gurea, baña, "aberŕtzaletasun" izaki.

ARITZ

"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALEA, USTE GABEAN KALERATU ZAIGU ETA ASKO ARITUTA DAUDE NOLA EUZKERAZ EGUNKARI BAT ARGITALDU LEIKEN. IRAKURTZEN ALDEZU? ARPIDETU ALTZERA? ZERI BEGIRA, ZAUDE?

ATZERRIKO IZPARRAK

Inglateŕa agiñak arte armaz bete bear dala diño gudalburu batek

Japon'go eraman-ekaŕietako langilleak irabazpide lodiagoak nai ditue.-Austria'ren politikea.-Venecia'ko jardunetan laztasun ugari.-Inglateŕa'ko zergo baŕiak. Daladier'en ibillerak. - Japon'en salerosketarako azkatasun osoa nai dau.

LANGILEAK OPOŔ

Tokio.—Uri baŕuko eraman-ekaŕietako langileak opoŕean asi dira. Euneko ogei geiago irabazi nai dabela agertu dabe.

Opoŕeko buruak tunel baten eskutan ziran, ertzañen tiroei iges egiteko.

AUSTRIA'REN POLITIKEA

Berlin.—Izpaŕingirik geienak uste dabe austriaŕ politikea Italia'gazko azkatasun geiago ezagutzeko eran biurtuko dala, bereziki Roma'gaz trataduak eta egiteko eran Mussolini eta Schusching'en artean egiten diran jardunen gairik garantzitsuena orixe izango dala uste da.

DIRU-LAGUNTZA

New York.—Argentina'ko Gobernuak labaldu daben diru aŭerakuntza bete dala adierazi dabe. Arpide ori atzo safatu zan. Dirudun txiki askok izenpetu dabe. Aŭerakuntza ori zorlontsua izan dala uste da, bereziki merkauko ezpaya gogoan artu ezkero.

JAPON'EN ASMUAK

Tokio.—Asahi'k esan dabenetik, Japon'en Lateŕi-Batza'ri egingo dautsozan asmo agerkuntzak onetxek izango dira. Salerosketa azkatasuna, eskuz gaiakaz jaubetuaz; munduaren izadi-aberastasunen oso kuntza eta aŕi-arteko salerosketa.

VENECIA'KO JARDUNAK

Londres. — Inglatefa'ko izpaŕingi guztiak Venecia'ko jardunetzaz idaztea dabe. "Times"ek diñoanez, Viena eta Praga'ren arteko adizkidetasunak min emoten dautso Italia'ri, Yugoeslabia eta bere arteko trataduaz alkaŕ-artzen ez dabena dala uste dabelako.

Izpaŕingi berberak uste dau, Anschluss'eri buruz italiak erabilten eban jokabidea ziaro aldatu dala, eta egunen baten osotuko dala uste dabenaŕen, ainbat beranduen izan daitela gura leukela agertzen dau. Ala ta be Austria'n eban aŕtu-emonaren galtzea zelan bait ordaintzeko, izpaŕingi oŕek uste dau Italia Yugoeslabia'ren adizkidetasun zindua iraŕazten alegindu ko dala. Yugoeslabia'gaz batera balkaniaŕ eŕiak bereganatu najko ditu, eta alegin egingo dau Austria'k Italia'ren adizkide diran eŕiekaz aŕtu-emonak egin dagiazan.

ERI ALDEZKETA DALA-TA

Londres.—Amery, Kolonietako idazkari zaŕak "Daily Telegraph,"en agertu daben idazlan baben diño, Inglatefa'ko batzaŕ nagusian erabiliko dan gairik gaŕantzitsuenetarikuena eri-aldezketa izango dala. Amery'ren ustez Inglatefa'k bere kolonien laguntasuna aŕtuko leuke, baña Inglatefa europaŕ eŕien nastetatik aldenduko leuken politika bat eruango ba'leu.

ONTZI BAT IKUSTEN

Venecia. — Hamburg-Amerika-Linie etxeko "Milawkee" ontzi andia ikusten izan da Mussolini portu onetan. Hoffmann, ontzi-jaubearen ordezkariak andikiro agurtu eban Mussolini eta opari oŕeŕ bat egin eutson etxearen izanez. Mussolini'k biotz eskaŕa agertzen erantzun eutsan. Erantzun au alemaneraz egin eban, izkuntza au ondo itz egiten dakialako.

AGIÑAK ARTE ARMAZ BETE

Londres.—Afrika'ren be-aldeko gudarostien burua eldu da efege jaiak igarotako asmotan. Izpaŕkariak armak geitzeatzaz zer eritxi daben itaundu dautsenian, sir Pierre Varnyveld'ek erantzun dau: Nire aolkuna agiñak arte armaz betetea izango da.

INGLATEŔA'KO ZERGA BAŔIAK

Londres.—Estadu zainketarako diru-geitzearen zegalti eta zirak azalduten jardun dau Lateŕi-Ogasuna arduradunak.

Zergak geituten, Gobernuaren aurkariak ontzat artuko ez ebena, baekiala ondo bere, adirazi eban Neville Chamberlain'ek.

Saneuŕiak jasotea aitatu dabe batzuk, eta etxe ta tresna baŕiak egiten eralgiko dituela irabaziak beste batzuk, esan daroe, edo-ta, diruak erbesteratuaz industriari kalte egin, zerga baŕiok ez ordaintzearen. Bañan iritziok, ez ditu onirizten.

Lege-asmo ori argi eta zeatzago ikusi arte, erabaki gogoŕ ta esturik ez artzeko aolku emon eban.

DALADIER'EN IBILERAK

Paris. — "Paris-Midi" izpaŕingiak, Daladier'ek Londres'era egin daben ostereari buruz idatzi dau, Inglateŕa eta Frantzia'ko Gobernuak eritxikide dirala politika eta ogasun auzietan. España'r auzian, belgikaren azkatasunean eta munduko eŕian artean egin biaŕ litzaken ogasun-batzaŕatzaz bat eginda dagoz.



Bilbao inguruetako aintziŕeko argazki bat

AZKATASUNAREN BILLA

Madrid'en katolikoen eskubideak aldeztu eta zainduko dira.-Españar gobernuak azkatasuna emongo dautse katolikoei euren sinisteak izateko. - Beste izpaŕak.

Donibane-Loitzun. — Paris'en dagon James Minifil izpaŕkariak idazlan auxe bialdu digu:

"Madrid'ko gotzain-ordeko katoliko Aita Lobo'k eta erkaldaŕ Gobernuak, España'ko Uri nagusian eleiza katolikoak lenbailen zabaltzeko asmoz, aŕtu-emanetan diardute, gauŕ Atholl'go dukesak, España'ri laguntzeko eratuta dagon aŕtuemanetako ingalandaŕ Batzoŕdeko lendakiak, izpaŕkariai jakin-erazo dienez.

Dukesak, Aldun-batzako batzaŕkide konserbadore, ta Ellen Wilkinson eta dame Rachel laboristak, Eleanor Cruwdy ta Eleanor Rathbone'k (azkenengo au ingalandaŕ ikastola nagusietako ordezkari Aldun-etxeratu da), oraintsu -oraintsu, España'ra jira-bira bat egin dute eta Madrid'ko eritaŕai laguntzeko eralguntza aztertu bertan.

Batzoŕdeak dionez, Aita Lobo'k ere, gaurdaiñokoan madridtaŕ batzu - batzuentzat baiño meza esaten ez zuten apaizakin auzia aztertzen diaŕdu.

Ingalandaŕ Batzoŕdeak egindako arakapenak darakustenez, españaŕ Gobernua uzkuŕtzarekiko azkatasun osoa beŕiro edatzeko gogo bizitan da orain eta mueta guztiko uzkuŕtzaleak euren siñisteak agiri agirian zabaldu dagizkitenen zale.

Apaiz-auŕkako beroak esipean daude orain, baiña giroa beaŕ baiño lenago nastatu ez dediŋ aŕetaz dago Gobernua, batzu-batzuk auziak - auzi ta ostopoak ostopo ekin ez dagiotenen bilduŕez.

Madrid eta España'ko ostontzeko eleiza protestanteak ez zuten gudate-



Bilbao inguruetako aintziŕeko argazki bat

MUNDU ZEAR

Suezia eta Noruega erkaldaŕen alde. Adden eŕia suagatu dabe ingelesak. Opoŕ zaratatsua Japon'en. Paxisten esanak guzuŕpetzen.

SUEZIA TA NORUEGA EŔKALDAŔEN ALDE

Elsingski. — Suezia'ko ta Noruega'ko Erbeste-arazo arduradunak batzaŕa egin dabe. Lateŕi bioi yagokuezan arazo batzuk astertu ostean, lateŕi bion izenez, españaŕ itxas-sailetan ibilteko kontrolak ipinten dautsezan eragozpenakaŕen euron asaŕea agertzea erabagi dabe.

ADDEN EŔIA SUAGATU DABE ENGLANDAŔAK

Londres.—Adden uria ordu biren buruan suagatzen jardun dabe englandaŕ gudontziak Gobernua'ren aginduz.

Beduino talde batek englandaŕ gudari agintari bat il eben. Isun edo multea leporatu eutsen orduan englandaŕak eŕi oŕetakuei ta aŭez esandako garairako isuŋ-indu ez ebelako, eŕia suagatu edo bonbardiau dabe englandaŕok eta olantxe zigortu dabez.

PAXISTEN ESANAK GUZURPETZEN

Paris.—Uri onetako Euzkadi'ko Gobernua'ren Ordezkaritzan izpaŕlariei englandaŕ itu itxasontzi Bilbao'ratu zirala aitzen emon eutsen eta itxasontziok janariak eruan ebezala.

Paxistak Bilbao itxasoz guztiz esituta eukela iñoen eta itxasontzi oŕein Bilbao'ratzeak guzuŕpetu dauz paxistok edatuteko izpaŕak.

OPOŔA

Tokio.—25.000 bazkide daukazan Eraman-ekaŕi Langile-Batzak opoŕa asi dau. Belbil guztiak geldi dagoz ta bultzi asko be, bai.

BESTE MATXINADA BAT

Afganistan.—Erki edo probentzi batzuetan gudariak asaldatu dira; asaldatu edo jagi diranok komunistak dirala diñoe.

Buŕuka batzuetan edozeinbat zauritu ta il dira.

ZAURITUAK ERABILTEKO TRENA

Londres.—España'rako zaurituak erabilteko bultzi bereziak gertauta daukez Inglateŕa'n; bultzi oŕeik kirurki-gaiz ta garbiketa-tresnaz ondo orniduta dagoz.

Eŕkaldaŕei bialduko dautse laster zaurituok erabilteko trenoi.

INGLATEŔA'N ERKALDAŔENTZAT OSAKAIAK ETA JANARIAK

Londres.—Erkaldaŕen portu batera osakai-gai ta janariak eruateko itxasontzia gertetako laborista-alderdiak 500 libra esterlina emon dauz.

Lloyd George'k, be, asmo oŕetarakoxe 250 libra esterlina emon dauz.

BEDI/ GA'TAR PILIPA

LAGUN ON BAT JUAN YAKU

Ara gudea sortu. Abeŕia galtzorian dago. Areriuak gure abeŕiaren zati bat artu dau; baña osua gura leuke artu.

Au dala-ta, lasteŕ aurkeztuten da gudari legez abertzale baketsu bat. Bereala erakutsi eban gudari onek bere adorea ta trebetasuna. Danak goratzen eben gudari kementsua. Aita baten antzekua izan zan danentzat eta, origaitik, asko maite eben bere menpean eukazan gudari guztiak.

Ilabete batzuk igazi ziraneko, lafi zaurituta jausi zan. Alan da guzti bere, bere gurariŕik biziena zan gudaketara baŕiro jenbailen itzultzea. Osatu baizen laster ikusi genduan baŕiro gure Irakasle maitiaren iŕena daruan saildiaren buru.

Ordutik egun gitxira, agindariak agindu eutsoen areriuak artuta euken mendi-tontoŕ bat eurei kenduteko. Ori entzun ebanean, etzan ikaratu gizona eta bere menpeko gudariak be poz-pozik artu eben agindua. Asi ziran mendi-tontoŕera igoten. Gudariburuak itz sutsu batzuk zuzendu eutsezan gudariai; abeŕi-maitasunez sututako itzak. Euzko-abendaren ereserkia abestuz ekin eutsoen mendiari.

Goruntz yoyazala, gudari guztien aŭetik jafi zan gudalburua eta tontoŕeraño eldu ziran garaian, bere eskuz aldatu eban arek areriuak an jaŕita euken iku-riña. Egite onegaz garaikuntza entzutetsua irabazi eben mutilak.

Baña, an bertan jausten zan betiko areriuen izkiluak erailda gudariburua Jaungoikoak beragana eroan gura izan eban, donokian berarizko saria emoteko.

Gudariburua berbera izan zan bi urtez gurekin Instituko'ko ikastolan euzkerea ikasten ibili zan ikasbide ona: Bedliga'taŕ Pilipa (goyan bego).

Ziñopa onek ederto erakutsi dausku bere Abeŕiaganako maitasuna.

Adore aundiagaz asi zan euzkerea ikasten be; baita ondo ikasi eban. Oneixek dira gure Abeŕiaren biozmiñak! Zenbat mutil baketsu juan diran olantxe euren gurasoak, adiskideak, lanak eta abaŕ itxita Abeŕia aldeztu'en!

Ez bildurtu, ez, Euzkadi gaxoa areriocn menpean jausi dalako. Jaungoikoaren laguntzagaz gure gudariak lortuko dabe bai, gure eŕiarentzako ainbeste gura dogun azkatasuna.

GEŔIKAGOITIA'TAŔ JULE.

"Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikua'rentzat" ixildu baga esan oi-eban Arana-Goiri gure irakasliak.

Esaera au abuan, goguan eta bijotzian euki biaŕ dogu, beti ta beti.

MUEŢA GUSTIETAKO KRISTALAK

GORBEA Y C.ª

ti'gn. Alameda de San Mamés txaidian 11447 Ufutizkiña

Donosti Buru Batzaŕa

"Kizkitza,'ren (G. B.) idaz-lanak argitaratzeko Donosti-Buru-Batzaŕ asmoa beterik, zabaldu ta dagon arpidearen jaŕaipena.

Oraindañokoa, laurleko	4.359,50
Altube'taŕ Seber	100
Olaeta'taŕ Sekunda	10
Irakurle bat	0,50
Beste bat	0,50
I.'taŕ K.	0,50
O.'taŕ M.	0,50
Oraindaño	4.471,50



Artaldia txabolaratuten

Katolikuak aŭetik darabilez Alemania'n

Londres. — Katolikoen aldezko diru-biltzeak nazitaŕ gobernuak gebendu egin dituala adirazi dau Berlin'go gotzañak.

Oregaitik, aŭerantzean diru-biletea oŕek eleiza baŭetan egin bearko ditue katolikoak Alemania'n

Peru ta Anton

Bizkai'ko baserri baten
Amoroto partian,
Gizon bi bizi ziran
Basarri batian;
Goizian sartzen ziran
Tabernako atian,
Ezebela urteten
Biaramon artian.

Gizon biok zirian
Peru eta Anton,
Euren aldi guztian
Biziak Amoroto'n;
Biak euki ezkero
Edaria bon-bon
Atsuari esaten eutsen,
"Nua ta ba-nayaton".

Biak egin ei eben
Seguru juntia,
Moskoa artu barik
Etxera ez juatia;
Efetiratu arte
Efiko jentia.
Etxera duanari
Kentzeko multa.

Peru'k dirautso Anton'eri
"—Itara egik pipia,
Azunbra ta erdirekin
Bete yalagun tripia,
Gaiñera edan yalagun
Aguardientia",
Niri beti gustau oi yat
Edari puertia."

Tabernariari dirautse,
"—Entzun egin patronn
Apari txar bi bañio
Oba yunagun bat ona.
Ezer ba-yagon biontzat
Ekarri egin ona.
Dirurik ez ba-yaukagun
Emongo daunagu "bona,,".

Anton.—Etxian eukiaren
Sarri morokila,
Arek ipinten dausku
Estamangu ila:
Guazen tabernara
Obiaren bila.
Andrija umiakaz
Tximurtu dadila."

Peru.—Artua zopan eta
Txoletian ura.
Etxuat atxonduan
Ojan bizi gura;
Lebatz edo ternera ona
Lukaika mustura,
Oñekaz egoten naz
Tabernan gustora."

Anton.—Atsuari kendu yautsat
Ule-kopetia,
Orain kostako yakok
Bera topetia;
Saldu ta edan yaiagun
Aguardientia.
Buru motzik dabilela
Atso tronpetia."

Peru.—"Krusaillu ipiñi egiok
Argiai metxia,
Bestelan ezingo yok
Bilatu etxia;
Kortako burdi zarra
Ba-litzok kotxia,
Antxe erabiliteko
Neure atso motxia."

Oarra. — Mandioa'tar Joseba zarak abestu dauskuz "bertso barjok" eta berorek aitzen emon dauskunez orain 70 urte-inguru argitalduak dira ta "Pantillon" izeneko bertsolariak egiñak: "Pantxillon" ori Gernika aldekoa zan ausago ta gitxik egin izan dabena egin eban: bertsok bizkaieraz.

"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALEAN ARPIDETU ALTZERA? ZERI BEGIRA ZAUDE ARPIDETU GABE? LENBAIT LEN ARPIDETU ZAITE ETA BESTE BEIN ERAKUTSI ZAZU ZURE ABERTZALETASUN ZINTZOA.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Burukidien bilera.-Izendatze batzuk.-Nekazarien baitura-zoŕak ordaintzeaz. - Ardau zuria eta gozoa saltzeko.- Jaboi banaketa. Astazkeneko orniketea.- Gaurtik, ogia izango dogu egunero.

Lendakaritza

ALKAŔEN BEŔI JAKITZEN

Lendakaritzako idazkari berezi berezi Basaldua'taŕ Kepa jaunarekin atzo jardunka lotu giñanean, auxe esan zigun oŕek:

—Alkaŕen beŕi jakin-naiaz, baizaŕ egin dute gauŕ Zaingo'etako arduradun jaunak.

Egazkiñak agertu zirala-ta, bi bider eten zuten arduradun jaunok euren batzaŕtxoa.

EMAKUME OŔEK BAI BIOTZ ZINDO!

—Ipaŕ jakingaŕia emanen dizutet—gaiñeratu zigun Basaldua jaunak.

—Bilbao'taŕ Golzone izeneko emakumea oraindaiñokoan Argentina'n bizi izan dana, Montevideo'tik Bayona'ra joan da ta Bilbao'ra etortzeko baimena eskatu du.

Bere burua gexozain eskeintzearen baiño ez du naj etoŕi, eritegietako baten bere eginkizunak betetzearen.

Esan beaŕik ez, etortzeko baimenaeman zaio.

Emakume oŕen biotzaren zabal eta zindoa, ludiaren basteŕ guztietan gure aldez duten zaletasunaren ezauga ŕia da.

IZPAŔIK EZ

Guda-Zaingo'ko idazkari nagusi Rezola jaunarengana ere jo degu, baiña, izpaŕik ez zuala erantzun zigun. Eta besterik gabe, alkaŕi aguŕ egin genion.

Efi-zaintza

LUISA JAUNARENEAN

Paxistaŕen egazkiñak atzo lenengo aldiz agertu ziranekoaren beŕi eman zigun idazkari nagusi Luisa jaunak.

Beŕi garbirik ez zuala gaiñeratu zigun, baña, jakin zuanez, agertutako egazkiñak sej zirala ta Nervion ibaiko eskubi-aldean zearka ibili zirala, bomba batzuk jaurtiaz.

Bonbak kalteak-kalte egin zituztela —jaraitu zuan Luisa jaunak.

Loŕatzik negaŕgaŕienak Zugatzarte-inguruan. Ondaŕeta'n eta Erandio'n izan dira.

Zuzentza ta Gogolantzea

IZPAŔIK EZ

Zaingo ontan ez gendun atzokoan ezeŕen beŕirik jaso.

Idazkari berezi Irizar'taŕ Peli jaunak esan zigunez, Leizaola'taj Josu Mirena arduradun jauna ez zan goizez Zaingo'ratu.

Nekazaritza

BAITURA EMOKUNAK ORDAINTZEAZ

Lufak landu ezin izan dituen nekazariei baitura zoŕak ordaintzeko epe baŕia emon yaken epalaren 3'gn. Aginduaz. Agindu aura egokiro betea izan dedin, beste erabaki batzuk azaldu ditu Zaingo onek.

Egiunearen agirik ez dabenak, baŕia zer biděz eta zeintzu zertzaiadakaz egin adirazten da erabaki oŕetan.

Zaingoa

OSAGILE TALDEAK

Lubakigintzan diarduen langile guzuŕa, eŕena baño be lenago ta erezago aŕtzen dala, saŕi be saŕi entzun ixan dogu. Esakun zaŕa da ixan be berau. Eta esakun zaŕetan, antxiñakuak esan oi-ebanez, guzuŕik ez dago.

卐 卐 卐

Franco, Mola ta Queipo'k be, Bilbao'ko Kaya'tzaz izpaŕ bardiña iragaŕi ixan dabe; lau aldietatik esituta aurkitzen dala Bilbao'ko kaya.

卐 卐 卐

Paxiotaŕak asmautako guzur-izpaŕ au, iradotsez edatu be-ta, ludi gustira edatu ixan da. Beraz, England'era be bai.

Eta England'en, batez-be Baldwin, Eden eta Hoare Jauŕlaritza'ko buru nagosijak, koldaŕez kiskilduta jaŕi dauz izpaŕ onek, aŕisku-bide oŕetatik kalterik gitxienaz urtetako neurijak aŕtuten. Eta diran buru-gordeljak diralako, bilbaotaŕen jaki-biaŕixan gustijakaz aiztuta, euren lateŕi-baŕuko ixontzi jabiei esan dautse. Bilbao'rako osterai laga dagijuela, saŕera-atia igaŕokeran galtzeko aŕiskua daukela-ta.

卐 卐 卐

Bilbao'ko kairantz dagijen ixontzijen aŕiskurik aundijena ez dago, ez, gure kai onetan, Baldwin eta Eden jaunaen makalkerijetan baño. England'ek ixontzi-jabiak be uste ori ixan dabe. Eta ixan daben uste ori zuzena ixan dala erakusteko, egun gitxiz onatz lau ixontzi Bilbao'ratu dira, ta ezetariko eragozpen barik kai-baŕuratu. Englandaŕak ixan dira ixontzijok, ixan be, ta bilbaotaŕentzat jakiz zamatuta etoŕi yakuz. ¿Nori-eskaŕak? ¿Baldwin eta Eden'i?

卐 卐 卐

Gipuzkoa'n, paxiotaŕak, gipuzkoaŕai euren elian mintzatuten gebendu egiten dautse.

Eurak, paxiotaŕak, ostera, Bizkai'ko euzkeldunei guzuŕen bat sakatu gura dautsenetan, euzkeraz idazten dabe, ta ingitxubetan Bizkai-ziaŕ edatu. Beraz, euzkerea be, euren nagosi - egaŕijari ur apuŕ bat eruateko gai dala ikusten dabenjan, edeŕo eraŕili oi-dabe, ta idatzi be bai.

卐 卐 卐

Bizkai'ko uri euzkeldun bateko txaunburuba, euzkeldun jatoŕa ixan zan euzkeldun jatoŕik iñun ba-da. Euzkeldun jatoŕa, bai, baña baj erdel-zaliabe. Eleiztaŕai esan biaŕeko agerkai gustijak be, arek, txindija eskatu biaŕ ixaten ez ebanetan, gazteleraz agertuten ebazan. Diruba eskatu biaŕ ixaten ebanian, ostera, euzkereari elduten eutsan, eta erderea baño jatoŕago oguzi be.

卐 卐 卐

Aŕaturiko uriko txaunburu jauna ta Donostia'ko paxiotaŕen euzkera-zaletasuna, antzekuak dirala esan leike. Arein euzkera-zaletasuna ta paxiotzaletasuna be, alde aundi barik ibiliko dirala uste dogu, jaupari euzkeldun jatoŕen erdeltzalekerija paxiotaŕkeri gexuaren kokoto edenduna ixaten da-ta.

卐 卐 卐

Atzo be, Mola'ren egazkiñak, zintzo ikeŕtu gendubezan. Zintzo ikeŕtu, ta euren ikeŕtaldijari yaokazan azerikerijetxubak egin be bai.

Len, Bilbao'ko kaya esituta eukela-ta, gosiaz il gura ixan gendubezan. Zabalgunde-era arek oker urten ixan dautsela ikusi ixan dabenian, beste bide bat aŕtzen asi yakuz: Ordunte'rako bia aŕtzen.

卐 卐 卐

Ordunte ez da Haro. Ordunte'ko saldia, ez da Haro'kua lakua, baña bai egaŕija kentzeko aukerakuagua.

Paxiotaŕen egazkiñak, araxe bidia ikasi dauskube, baŕiz, eta jaditxi al ba-dabe jaditxi, edateko biaŕekua yakun ur ozkifija galdu aŕte ez dira geratuko.

Gosiaz gitxi loftu ixan ez dabenia-t, baña egaŕijaz be ez gaŕubez ilgo onezkero. Eraiłtekotan, guaga-berunbilakas eraiłgo gaŕubez. Gosia ta egaŕijaz ez, gosiaz eta egaŕijaz iłten diranak, gitxi be gitxi ixaten dira-ta.

Saseta

I

Aguŕ, Euzkal-eŕiko mendiak
aguŕ, Abeŕi laztana.
Gudate ontan zerbait naigabe
badu berekin izena
ez da alegin gutxi egin da
mundu ontatik juana
Asturias'ko luŕ arozetan
il zaigu Saseta jauna.

II

Lendabiziko ekin aldiak
Gipuzkoa'ko partian
auŕenengo aldiz sauritua zan
Andaizeko tontoŕean
gero bigaŕen balak jozuen
Legutiano aldian
Atzen odolak ixuri ditu
Asturias'ko luŕian.

III

Gipuzkoa'ko mendietatik
Bizkai'ra giñan etoŕi
gure aitatzat dudarik gabe
uraxe gendun ekaŕi.
Negaŕ malkuak ura akordatzen
sortutzen zaizkit neŕi
bere ondora eraman zezala
eskatzen diyot Jaungoikua'ri.

IV

Gure tartian ibilia zan
gizon jatoŕak bezela
izan zituen naigabe ayek
arek etziłun besteia.
Betiko itza ezan oizuen
Abeŕiya biaŕ zala
orain zeruan egongo da ta
andikan lagun dezala.

V

Penas beterik jaŕiak gaude
Euskal-eŕiko anayak
gure tartian izan ditugu
naigabe izugaŕiyak
ez biaŕ ori izandu zuen
Saseta agurgaŕiyak
bere azkekabez lagun deiola
Euskal abeŕi guztiyak.

VI

Azpeitia'ko Loyola'n gendun
lenbizi guda-etxia
ango agintari izandua zan
gure Saseta maitia.
Gudaŕ zebiltzan mutilentzako
bazuen borondatia.
Aita San Pedro'k zabal zeiyola
zeruetako atia.

KALAMUA.

Bilbao'ko Bigaŕen malako Irakastetxea

Batxilerato lenengo iru urteak irakasteko izan ditugun eragozpenak garaitu ditugun ezkero, ila onen 30'gnarte, matrikula idegirik dogu. Ikastetxe ontako idazkaritzan, Alameda de Urkixo, 18'gn.

Joan dan urtaŕilean Gogo-Lantze Zaingo'an eskari egin eben ikasleak ere, «Idazkaritza ortara jo begie, esandako epea baño len.

Gogo Lantze Idazkaritza Nagusia.

Saleroskeia ta Orniketa

EMOKUNAK

Lasa jaunak emokun auek artu zituala adirazi euskun:

Tejada ta A. baltzuak 1.000 laŕleko ta 20 kaxa "San Roque" ardau gozoa emon ditu, odol-gexotegietarako.

Zugazabeitia ta Legaŕa'k, 20 kaxa ardau gozo.

Armendariz jaunak, 100 laŕleko.

ARDAU ZURIA SALTZEAZ

Ardau-biltegiduŕak eta saltzaleak eláu ziran atzo Zuzendaritza onetara, saltzeko ardau zuria nai ebela lerfu-ta.

Asmo ta eskari ori, aintzat artua izan da, baŕan baldintza bat ezaŕi izan yakoe, ta saltzalok neuŕi ori ontzat etsi dabe.

Ardandegi ta baretan, goizeko amaŕetatik afatsaldeko ordu biak bitartean bakaŕik saldu bearko dabe aŕáu zuria.

Lafegikeri guztiak gogoŕki zigoŕtuak izango dira.

ARDAU GOZOA BANANDU

Efiari moskatela bananduteko asmotan gara, iñoskun Lasa jaunak; lan orixe ez dogu ordea efeza izango. Baña oraingo banaketan ezin ba'da, ufengoan ikusi bearko.

JABOI BANAKETA

Ufengo barikuan jaboia bananduko da, eta beste martitzenez. efietan egingo dabe.

BARIKUKO BANAKETZAZ

Atzo emon genduzan gaj eŕeskadetan aldaketa zerbait egin beaŕa dogu.

Oŕegaitik, ona emen baŕiro, banaketa gauzak zertzuk izango diran, zeatz.

Patatak, 1.000 gramo; aŕoza, 350; makalaua, 150; babaŕunak, 250; gozokia, 250; ilaŕak, 100; tomatea, lata bat ala bi, iru ta lau lagunentzat.

OGIA GAURTIK

Gaurtik auŕerantzean ogia izango dogu, garia ugari artu dogu-ta.

Akeitetxe ta ardadegietara jakiekin saltzeko izango dan ogia, merkeago emon beaŕa izango dabe okiñak.

ERRI - ARTEAN

EUROPAR PAXISTEN ARTUEMON KUTUNAK

Alemaniar guda-agintaritza osoa zergaitik ete dua Italia'ra?

EUROPAR PAXISTEN ARTUEMON KUTUNAK

Berlin.—Europa'ko sartaldeko estadu eŕizalien ordezkariak alkaŕen arteko artu-emonak etengabe izateko noizean bein Paris'en, Londres'en eta Bruselas'en alkar-izketak egin daroezen artean, Europa Erdi aldeko estadu agindukera zeatzakoak, Berlin eta Roma egundoko batuen dagozala adirazi nai dabe, eta arokeriz eta zalapartaz adirazi ere

Berlin'eko eta Roma'ko estadu ordezkariok laster egingo daben alkar-izketearen beŕi jakin daneun, len baño ere agiriago ditugu asmo oŕeik.

Ufengo bagilean izango ei-dau Hitler'ek Mussolini'ren ageŕaldia.

Bienbitarteun, beste ageŕaldi oneik egiten diardue eta egiteko asmotan dira

Goering aleman generala, Hitler'en otsein nagusia atzo aŕatsaldean eldu zan Roma'ra, eta Mussolini'rekin izentaldia izango dau. Ufengo igandean Berlin'era itzuliko da, "Duce"gazko batzaŕean izandako erabakiak Hitler'eri adiraziteko.

Goering'en Eroma'ra ostera ori, ordea, "berezia" dala, berekikoa dala esan dabe, ez agindari erakoa.

Werner Von Blomberg, aleman guda-ministrua gudariburu talde bat lagun dauala joango ei-da ufengo astean Italia'ra.

Ostera oŕen ziorik ez dau iñork azaldu, baña antza danez, aleman guda buruzagiak beŕe adizkide italiaraí egiten dautsen ageŕaldi adiguritsu eta adeitsua izango da.

Jakingaŕia litzakigu, ordea, aleman guda-agintaritza osoa Italia'ra zergaitik doian jakitea.

Erbeste - araŕuetako ministru alemana ere, Baron Constantin Von Neurath, oŕilaren 3'gn. joango da Italia'ra, ta bost egunez beŕtan egongo da.

Ibiltaldi au, Mussolini'ren Berlin'era ostera prest eta gertuteko alegiñezkoa izango da, diñoenez.

Aleman langile - burua, Robert Ley, Italia'ra baŕiren baŕi joan da, italiaŕ langilien batzak ikustera. Irurogeta amaŕ idazle aleman ere, Italia'n dagoz. Oraindik orain doistaŕ olajaun talde bat ere eŕialde ortan genduan.

Venecia'n, Austria'ko gobernu-burua, Schuchsning, Mussolini'rekin izketaidian ari da oraingoan. Ta Italia'ko eŕegeak Budapest'era eldutxu bat egingo ei-dabe aurtengo udan.

Mussolini Hitler'engana joan baño len, beŕe otsein Condo Volpi, italiaŕ diŕutza - ministrua Berlin zear ibiliko da, italiaŕ industri - gizon mordo bat laguntzale dauala.

Italiaŕ izpaŕkari sala Alemania'ko egoaldean ibili dabil. Oŕez ganera, Banco de Italia'ren jauniari dalakoa, Vicente Azzolini, Berlin'en izan dogu igaziriko astean.

Hungria'ko guda - burukidea, Roeber kenerala, Berlin'en dogu arabera, eta Glaise, austriaŕ ministrua lengo batez, Hitler'en eguna zala-ta gure artean gendun.

AZALPENAK

Españar eŕepublikearen gobernuari lagundu egin biar yako, zuzentza beragaz dagolako.

Ginebra.—España baŕuko gudateari buruz ta "ez-sartzeari" buruz Mexiko'k Lateŕi-Batzaŕa, bertan ain izen garbi duan Fabela'taŕ Isidor mexikaŕ ministruaren bidez bialdutako agiria dala-ta diardute.

Españaŕai buruz artu duan jokabidearen oiñari Lateŕi-Batzarekin egindako eta Habana'ko Erabakia, ogeitabat amerikaŕ lateŕik izenpetutako erabakia, jo du Mexiko'ko Gobernuak.

"España'ren lufaldearen osotasuna ta politika-askatasuna atzeŕitaŕen erasoz zaurituta argi ta garbi dakusgunez—dio agiriak—, babes eman bear zaio españaŕ Gobernuari, babes eman eta, Lateŕi-Batzako batzarkide danez eta ori bidez dagokionez, ziurtasuna eman. Begiramen izango zioteke agindu zioten Lateŕi-Batzakoak eta lufaldearen osotasun aldez ere begiramen izan nai jioteke. Arau oŕek agintzen duanez jokatuaz, gertu dago mexikaŕ Gobernua España'ri lagun egiteko ta lagun egiten dagokio gogoz eta gaiez. "Ez sartzea" arauak ez du izki ta erabakiaren muiñik. Lateŕi-Batzak, lege-arauz eratutako espaňaŕ Gobernu eta Valencia'n dagona baiño ez du onaŕtu."

Mexikaŕ Gobernuaren España'ri gaiez lagundu-naiak—dio Fabela jaunaren agiriak—amerikaŕon erabaki bat ere ba-du oiñaŕi. Auxe dio oŕi buruz:

"Lateŕi-baŕuko gudatetan amerikaŕ lateŕiak zeintzuk bide uŕatu bear zituzten, argi ta garbi azaldu zuan Habana'ko Batzaŕeko erabakiak. Asaldariai guda-izkiluak ematea, galerazo egin zuan. Asaldariak guda - zale etsitzekotan, amerikaŕ lateŕiak baterako baiño besterako zaletasun biziagorik ez dute agertu bear. Ez Mexiko'k eta ez Lateŕi-Batzako geienak Franco etsi ez dutenez, gaiezko al danik laguntzarik aundiena eman bear zaio españaŕ Gobernuari. Auzi ontan ez batera ta ez bestera edo "ez-sartu" araua bete bear dutenak Lateŕi-Batzako batzarkide ez diran lateŕiak dira. "Ez-sartzeak" Franco'ri lagundu baiño ez diote egiten, eta ori lateŕi arteko legea austea da."

Oraingoz ez dio nai Mexiko'k auziari geiagoko bultzadarik egin. Iñoiz "ez-sartu" esia dala-ta, mexikaŕ itxasontziak atxilotuko baluteke, Lateŕi-Batzari agiriko jardutzeko oiñaŕi eukitzearen bialdu dauzte de Mexiko'k lenagoko eta oraingo bigaŕen agiri au.

KALEKO MARMARRA

Euzkoak...! irmo!

Gure luŕari josita bizi gera euzkotaŕok. Abeŕia ezagutu genizuenetik aregio. Etxetik kanpo, aŕdi galduak bezelatsu gaituzu. Gure izaeraren etxetik kanpo alegia.

Betikoa izan da euzkoaren etxe-miña. Jaiotzetik datorkio.

Euzkoa eta etxea auxe deritzaizkigu: batean sortzen diran bi gogai; alkar-naasten zaizkizun bi oŕartzun; ezpain bietan batean ziritzen diran bi muxu; ondaŕera lertzera datozen bi olatu; alkar-besarkatzen diran bi zuzko beso

Eta gaurko egunean iñoiz baño nabarmenago. Gaurko egunean iñoiz baño tinkoago.

Abertzaletasunak ikutua baitda gure eŕia.

Ain zuzen ere, abertzaletasunez kutsuturiko etxe-miñak gaizkatu gaitu orainaldiko ekaitzean.

Antziña, euzkoa bere luŕari josita bizi zalarik ere, andik onera eta emendik ara, eŕexki zerabilten jauntxoak. Bein baño geiagoetan, atzeŕi luŕetara joana dezue. Baratzaz aztuta besteri laguntzera. Etxe-zaintzeak haiko lan ez baitu lez.

Olaxe joan zan euzkoa atzeriaren besoeŕa. Gisa ontara galdu zun askatasuna.

Eta alare, bere luŕari josita bizi zan. Etxetik kanpo aŕdi galdua zirudin. Baño begi-aurean zizumik etzizun ikusten: abertzaletasuna.

Gaur besterik da. Gaur, abertzaletasunak ikutua degu eŕia. Lengo itxuraŕik ez degu iñondik iñora somatzen. Etxe-miñak gaizkatu gaitu buru gaiñean ibili zaigun ekaitzean. Abertzaletasunaz kutsututako etxe-miñak. Etxera gero ta gogoŕago eroitzen gaitun abertzaletasunak.

Lengo gauzei ezin gaurkoan bizirik eman. Aruzkoen edo onuntzagokoen alde ezin izkiluŕik artu. Gauza oiek il ziran. Gauza oiek edestiari buruzkoak dira.

Euzkadi'ri begira biurtu da gudaŕi lan da lan ziardun epzko-mutil lerdena. Eta Euzkadi'ri begira diardu guda-oñean. ¡Euzko-luŕari eŕotuta!

Etsaien orainaldiko eraso makuŕa, abertzaletasunez kutsuturiko etxe-miñak gaindituko du.

Etxeari begira... ¡irmo euzkoa!

UZTUŔA.

AU, ORI TA BESTE

Ingeles izpaŕingi guztiak Bilbao'ren blokeorik ez dagola ezagutzen dabe

Lateŕi-Batuetako gobernuari eskariak. - Jones Patatero ontzi - buru ospatsua Gibraltar'en.-Kontrola egiten diarduen italiar itxasontziak.-Miñetako langilleak opoŕera juango dira Londres'en.-"Istria" itxasontziak ondua jo. - Euzko guda -oñetan il diran paxista andikiak. - Beste izpaŕak.

PANTZETAŔ JAKITUN BATZAREN DEIA

Paris.—España'ko erkaldaŕen alde Pantzeta. Jakitun Batzak egin daben deian, Prantzia'n zeaŕ España'ratzen diran alemandaŕ egazkiñei eragozpenak jaŕi beaŕ yakoezala ta kontrola ausiaz egazkiñez paxistoi laguntzen jaŕaitzea. Alemania'ri eragotzi egin beaŕ yakoela esan dabe.

Ingelesak zital eta paxistak igesi

Londres.—Bilbao'ratu diran ingelateaŕ iru itxasontziak naiko laŕi ibili dira izpaŕ ori edatu ez danaŕen.

Ontziburuok Donibane Loitzun'dik Bilbao'rako osterea laŕi gabe egin ebela azalau dabenaŕen Lateri-itxas-sailetik kanpora egoazala, "Cervera"k kañonazo bat jaurti eutsen auŕeko aldeko aldera. "Hood" gudontziak beste "destroyer" baten bitartez euron aurka dunbadaka ekingo eutsola aitzen emon dautse paxista-gudontzioi, beingoan tiroka egiteari lagaten ez ba eutsoen.

Orduan apal - apal aldendu ei-ziran paxisten ontziok.

"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALEA, UZKURTZ ALDEZLE ZINTZOA DA. IZANGO OTE DA EUZKOTAR KISTAR ZINTZORIK LAGUNTZA UKATUKO DIONIK?

Egazkinlari aldaketa

Donibane Loitzun.—Erkaldaŕ egazkinlari taldeko Pelletier frantzetaŕ egazkinlari buruaren ordaiñez Hans Schmid alemaniaŕ egazkinlariaren kajea burutu dute gaur gabaz emen. Egazkinlari au bere borondatez paxistaŕ asaldariaj laguntzera joandakoa da eta Bilbo'ko gazkinlariak egazkin eta guzti luŕeratu zutenean Bizkaia'n aŕapatutakoa.

Pelletier prantzetaŕ egazkinlari burua "Galerna" itxasontzian Gobernu-aldekoena zala, aŕapatu zuen. Bilbo'ra zetoŕen Pelletier, Bilbo ta Bizkaia zaintzen diarduten egazkiñlari-taldea ugaritzera.

BILBAO'KO ITXAS-ESIAK ETA ENGLANDAŔ IZPAŔINGIAK

Londres. — Bilbao'ko itxas-esitze edo blokeoa dala ta, esames asko sortu da, englandaŕ itxasontziak Bilbao'ratu ostean.

Guda-esirik ez dagola, blokeoarena guzuña dala diñoe eskumataŕ izpaŕingiak.

Gobernuak auŕez adieraso ebanez duazala gauzok, aitzen emoten dabe ta bide onez duala arazuoi.

Ezkeŕtaŕ izpaŕingiak Gobernua'ren asmoakaŕen euron asaŕea erakusten dabe.

"Daily Herald"eri pozgaŕi izan yako englandaŕ itxasontzion Bilbao'ratzea ta blokeoaren ipuiñok alde batera laga bear dirala diño.

Aŕiskurik ez dago ta Gobernua'k erabakiak aldatu beaŕa dau.

"JONES PATATERO" GIBRALTAR'EN

Gibraltar.—"Marie Llervellyn" englandaŕ ontzia eldu da. Jones ontziburua ospetsu egin da. Oŕetxeri deitzen dautse "patata ontziburua".

LATEŔI-BATUETA'KO GOBERNUA'RI ESKABIDEAK

Washington. — Paxistakerien aurka ta azkaltzaletasunen alde ekin beaŕ dautsola Lateŕi-Batueta'ko Gobernua'k eskatuaz, lege-asmo bat aurkeztu dau Aldundi'ra Sirovicr aldunak.

Paxistakeri - agintaritza mende dagozan lateŕien kaltez, beste lateŕia guda-zoŕak gitxitu dagioezala eskatu dau.

JANARIAK ERKALDAŔENTZAT

Londres.—Iru mila tonelada, 900 urun -zoŕo ta 150 azukare tonelada dakartzan beste ontzi bat urteteko gertu dago.

INGELATEŔA'KO ITXASONTZI -OLETAKO LANGILEAK OPOŔEAN

Londres.—Itxas ontzi oletako langileak egin daben batzaŕean, egin dabezan obaro eskabideak lortu-arte opoŕean jaŕaitzea erabagi dabe; opoŕa jaŕaitzearen al de 1.015 langilek emon eben botoa ta 64'k aurka.

MEATZETAKO EDO MIÑETAKO LANGILEAK OPOŔ OROKOŔA

Londres. — Minera-Batzetako Batzorde ta Artezkariak batzaŕa egin dabe ta opoŕ orokoŕa asi edo ez asi eztabaidatu dabe.

Opoŕ orokoŕa astearen alde 414.546 autarki izan dira.

Opoŕaren aurka 61.445.

Gorabera oŕeik astertu ta zer egin erabagiteko meatz-sailetako ordezkariak batzaŕa egingo dabe il onen 30'gn., eta orduentxe erabagiko dabe opoŕa noz asi.

KONTROLA EGITEN DIÑARDUEN ITALIAŔ ONTZIAK

Roma. — España'ŕ itxasertzak zaintzera araŕegun atara ziran beste italiaŕ gudontzi batzuk. Creux lur-mustuŕetik Oropesa'ra arteko saila zainduko dabe gudontzi oŕeik.

Gudontzi - taldeoi torpedero batzuk, bost torpedero-aurkakok eta motonabe bik osatzen dabe, 2.000'tik 3.000 toneladakoak dira ontziok eta 120'ko kañoiak, egazkin -aurkakoak eta torpedo jaurtzakoak daukez.

EUSKO-GUDA - OIÑETAN IL DIRAN AUNDIKIAK

Eŕeketeen Buruzagi ziran eta eusko-guda-oiñetan ij diran batzuen izenak argitaldu dauz paxisten izpaŕingi "La Voz de España"k.

Oŕein artean iruñaŕ gazte argi Ugalde eta Agiŕebengoa'taŕ Joseba Mirena. Teniente zan eta Kalamua'n il da.

Guillonieres'ko jauna, be, eusko - guda -oin baten jausi da izpaŕingi oŕek diñonez.

Aundikiak il diran toki oŕeitan, zeinbat aundiki ez diran jausi ete dira?

BOTANIKA IKASTOLEA

Kiew.—Botanika Ikastola aundi ta edaŕa egiten ekin dautse; etxe ta baratzak egiteko ogetasaspi miloi rublo batu dabez.

Europa'ko aundienetariko izango da.

ITXASONTZIA BEIA JOTA

Tunez.—600 tonelada miñeral eroiazan efusiaŕ itxasontzia itxasertzean beia jota geratu da. Itxasontzi ori "Istria" da.

Itxas-gizonok urten dabe ta itxasontziot atzera urgaiñeratuko dala uste dabe.

EA

GORDELEKUAK. — Paxisten egazkiñak edozer egin leiklela-ta, zeŕ gertako be, eŕi onetan gordebekuak egingo dituela entzun dogu. Eraŕbaki zeatza orixe, eta pozez aŕtu doguna, ganera.

Suagaketaŕik ez jasan beaŕa izatea guk jazo leiteke, ta orixe genduke nayen be, baña gordelekuok premiñazko dituguŕik ezin ukatu.

Egundo ezagutu ez dan lako gogorkeriz jokatzen dabe paxistak, eta euren gaiztakeriak dirala-ta bakoitzean lagun pilo bat jlaŕen ez dabe ezetariko kezkaŕik. Eta gudea iŕabazi ezin daben ezkero, euren girña zitalak asetutearen, guda oñetatik ufuti dagozan eŕiak bonbaz josten eta apuŕtuten itsututa jarduten dabe.

Bizkai'ko urietan egazkin deunga oŕek egin dituan triskantzak gogoan doguz, eta jlak izan diran ainbat eta ainbat lagun eŕubako. Domekan bertan Bilbao'n ilik ete zauriturik ugari izan ziran.

Oŕegaitik erabagi ori oso egokia dogu. Emengo biztanleak beaŕeko doguz aŕiskuari igesteko gordelekuok. Lan bikain ori dala-ta, txaloak merezi ditu gure Udalak. Gauza itzala dogu bonbardeoa; etxeak apuŕtu, eŕe, jlak ugari, ausi-abaŕa ta ondamendia.

Beraz, gordelekuok lenbailen egin eta ondo zajndu beaŕ doguz gero. Gurasoak etxean eta irakasleak eskolan adirazi begioe umeai ondaŕ-sakoai geldi utzi dagioen. Euren eta beste enparauon bizitza zaintzale diraŕa lekuok irakatsaŕik.

Ta zaŕaguok, geure zeregin ori ondo be ondo beteko dogula deritzat. Gertu, ba, janeŕako.

Bilbao'ra janariak bialtzeko

Laboristak ontzi bat gertu dabe Bilbao janariz beteta osteraŕ egin dagiazan.-Beŕogei milla libra esterlina batu bear izan ditue oŕetarako. - Minific'en idazlan bat.

"Manchester Guardian"ek idazlan auxe argitaldu dau:

"Laborista Alderdi'ko jendakari dan James Maxton'ek eta Fenner Brockway idazkariak Bilbao'ra janariak bialtzeko itxasontzi bat erosi nai dabe.

Bilbao'ra janariak eruateko ontzia erosteko beaŕ ebazan 40.000 librak ba-eukazala-ta, ontzioi erosi egin beaŕ ebala aitzen emon eutson araŕegun Fenner Brockway'k izpaŕlari bateri. "Itxasontzioi erosteko hatza bat sortuko dogu ta geuri deritxaguzan artezkariak aukeratuko doguz. Artezkari oŕein arteko Wilfrid Roberts aukeratuko dogu; laboristen aldun ori artezkari izateko gertu dago. Miss Ethel Manning, idazle trebeak 1.000 libra emon dauz batza oŕen kontura.

Berorен eginkizuna bete dagiunean, itxasontzioi saldu egingo dogu ta emokunei yagokuen senean, ordainduko dira zoretan artutako diruok. Itxasontzioi erosteko asmuoi Mr. Maxton'ek agertu eban eta neuk, be, ontzat emon neban. Englandaŕ erkaldaŕ-zale, guztien izenez erostea begitandu yaku nondo ta paxisten aurka diñarduen erkaldaŕen omenez guztion artean erosiko dogu.

Janariak eta osakaiak Bilbao'ratzeko, emengo agintarien agindupe egongo da itxasontzioi, berorен beaŕa dan-arte. Gero saldu egingo dabe ta batza banandu.

Mr. Maxton eta ni itxasontzian juango garala esan dabe. Mr. Maxton'ek juango litzakela diñost. "Independence Labour Party"ren izenez C. A. Smith, be, batzako izango da. Amsterdam'era ordezkari bat bialdu dogu, Eraman-ekaŕi Batza Nagusi'ko idazkariakin itz egin daŕan. Ontziburu ta itxas gizonez ornidutа, beingoan izango dogu gertu ontzioi."

Bideko aŕiskuei buruz onantxe jaŕaitu eban:

"Gaur artu doguzan agiriak daŕakuskuenez, itxas-esion autua geu bildurtzeko asmatutako ipoiña da: orixe uste genduan, len, be.

Ume - Laguntzaile Batzaren izenez Bilbao'n izan diran ingelateaŕ emakume bi, Miss Bronwen eta Mrs. Gee, Donibane Loitzun'en Bilbao'tik etoŕitako ontziburu bikin egon dira. Ontziburu oŕek atzera Bilbao'ratzea nai ei -eben eta Bilbao'rako bidetako aŕiskuena ez zala egia esan ei-eben. Iru aste auŕerago ezetariko eragozpen gabe sartu ta urten ei-eban Bilbao'tik "Hamsterley" ontziburuak. Ontziburu oŕek itxasontzian eukezan janari guztiak emon ei - eutsezan Bilbao'n eske juan yakozan eskaleei.

Ingelateaŕa'ko Gobernua'k ontziei Bilbao'ra ez edizala juan esan dautse ta Eden'ek ostera Komunes Aldundia'n Bilbao'ratu nai eben ontziei gudontziak lagun egigo eutsela luŕetik iru milara arte aitzen emon dau Eden'ek, Brockway'k esan dabenez.

Bilbao'ko Agintariak portu - saŕeran miñaŕik ez dagola ta iru milaren baŕuan itxas-egaleko kañoiekin ontziak ontziak aldeztuko dabezala aitzen emon dabe. Iru milara arte gudontziak zaintzen ba-dabez, gero itxasertzetik zainduko dabez ta Bilbao'ratzeko ez dago aŕiskuŕik.

Amabost egunen baŕuan janariz beteta ontzi bat Bilbao'ra bialtzea erabagi eben.

Eskeŕetik lenengo agiri dan au, Tewfik Nessi Pasha Egipto'ko bakaltzain ospetsuba ta abeŕtzale eŕimia dozube.

Laboristen iritziak

España'ko gudea gogoŕa ta luzea izan aŕen gobernuak irabaziko dau

"Manchester Guardian„'ek diñona

Londres.—"Manchester Guardian" egunkariak, J. Jagger aldunak laboristen batzaŕ batean esan dituanak azaldu ditu. Newton Heath Town Hall'en, Manchester'en izan da itzaldi ori.

España'ko gudea gogoŕa ta luzea izan aŕen, Gobernuak irabaziko dauala-ta, laborista alderdia baŕi oŕegaz pozik dala agertu eban.

Gauza bat gomutan izatekoa da: Foreing Office iñoiz ez iñoiz ez dala langile -Gobernu zaleaizan. Baña ori edestiari dagokio. Ingeles Erbeste-arazuetako Zaingoa ez da egundo arduratu erbeste gauzetzaz, egiune, itunben eta geŕa - asmoetzazko erabakiak izan ezik.

España'ko geŕa asieran ere, langile Gobernua ez yakon, nonbait, Inglateŕa'ri atsegin izan.

Euzko-gudaŕi aŕkaŕak gosez esituta amore emon beaŕa izango ba'lebe, asaŕe izugaŕia izango leuke eŕi onek, Hoare Laval egiunea zanean bezela.

Gosete ori, ingeles zama-ontziei ingeles gudontziak ez lagunduteko agindua izatekero bakaŕik jazoko litzake.

Ingeles Atzeŕi-Arazu Zaingoa'k eŕisku andiak ufutiratzea izan dau jardun berezia. Laboristа alderdiak, ostera, españaŕ Gobernu eŕizaliei lagundutean asmo bikañagua izan dau, al danik eŕi geienetan demokrazi agindukerea zaindu ta iraun -erazo.

Wilfred Burke aldunak ere, España'n paxistak irabaztea gaitz ebela eritzola esan eban.

Alderantzira baj ordea. Europa'n ditadura jaurkereak aŕtu dauan lenengo zaplada gogoŕa ortxe emon dautsela esan giñei, azaldu eban.

Ingalandaŕko Edorta VIII'gaŕena bakal-aulkija laga eban ezkeŕ, ludijaziaŕ dabiltzu, lateŕi-arazuak emon oi dabezan burukominak astutzen.

EGUNA JEL

Lafi - aldijetan agertu biaŕ da sendotasuna. Jolas-aldian, edoñor da baikoŕ ta adoretsu.

Lgo. urtia | 98'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n '937'gn. jorrailla 25'gna. igandea | 15 eunen

Españar gudako izpaŕak-eta

Toledo, Las Navas eta Carabanchel bietan eŕepublikaŕak auŕeraka

Granada ingurutan be buŕuka gogoŕak egin dira ta eŕepublikaŕak auŕera.-Celada inguruak gogortzen.-Eŕepublikaŕen egazkiñak iñoizkorik gogoŕen..., baña España'n.-Asturias'ko gudako izpaŕak.-Paxistak gudari asko batu ditue Peñarroya eta Villaharta'ren ingurutan.-Beste izpaŕak.

ALDERDI BAŔIKO ARTEZKARIAK

Salamanca. — Falange Tradicionalista de las Jons'ko Idazkaritzako Manuel Hedilla, Tomas Dolf, Luis Arellano, Jimenez Caballero, Sanchez Bueno izentatu dauz, Franco'k 1931'gn. kintetakoei, be, gudaritzarako deia egin dautse.

"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALEAN ARPIDETU ALTZERA? ZERI BEGIRA ZAUDE ARPIDETU GABE? LENBAIT LEN ARPIDETU ZAITE ETA BESTE BEIN ERAKUTSI ZAZU ZURE ABERTZALETASUN ZINTZOA.

GUDA-OIŃETARA BEGIRA

Madrid.—Guda-oin geienetan bare-bare.

Arañegun Madrid suagatu-suagatu egin eben paxistok, egundoko bizien.

Jarama aldean izan ziran buŕukaldi batzuk; inguru oŕeitan erkaldaŕak paxisten eraso bateri eutsi egin eutsen; Carabanchel eta Usera'n astindu edeŕak emon dautsez paxistoi.

Villaharta, Belmez, Peñarroya, Pueblo Nuevo ta Fuenteovejuna aldeetako mendietan izan dira buŕukok. Inguru oŕeitan paxistok gudari talde aundiak pilatu dabez.

Beste sailetan artileri ta egazkiñak jardun dabe buŕukan. Buŕuka gogoŕen ezaugaŕiak dira.

Guda oñetako agiriak

GABEKO IZPARRAK

EUZKADI

EUZKADI'KO GUDA-ZAINGOAK ATZO GABEKO AMAŔETAN EMANDAKO AGIRIA:

Gipuzkoa'ko guda-oiñean

Eibar, Markina ta Leketio-inguruetan, bastetak [illegible]tuaz, zearka ibili dira arerioaren egazkiñak.

Leketio-ingurutik Ondaroa'runtz zijoan arerioaren talde bat zuŕatu dute.

Elorio ta Elgeta inguruan arerioak gogor joten jaraitzen du eta gure gudari kementsuak oiñik-oin eusten diote lur-zatiari.

Bizkaia-Araba'ko guda-oiñean

Ezer aipagaŕirik ez da izan. Arerioaren egazkiñak bonba batzuk jaurti ditu, baiña, ez dute kalte-egiterik lortu.

Burgos'ko guda-oiñean

Gure artileriak guda-oin ontako arerioaren esi batzuk astindu ditu, Betetin'goak batez ere. Arerioak ez du erantzun.

MADRID

Madrid.—Guda-Zaingo'ko Agintaritza Nagusiak atzo gabeko amaŕetan emandako agiria:

"Erdi-aldeko gudari-taldea.—Gudari-talde ontako guda-oiñetan ez da ezer aipagaŕirik gertatu.

Teruel'eko batza. Talde ontako ipar-aldeko guda-oiñean erkaldaŕak egunaren buruan azterketa lan eta euren buru-agertzeak egin dituzte. Inguru batzuetan erkaldaŕak bi kilometroz-eta auŕeratu dira eta Teruel'etik Zaragoza'rako bidetik iru kilometrora dauden guda-esi batzuen jabe gelditu.

Sortaldeko gudari-taldea.—Nolzbeinkako fusil-otsa eta ametraladora-papada. Gureak ez dute kalterik izan.

Paxistaren lufaldetik iges egindako batzuk erdu dira gure aldera.

IPAR-ALDEKO GUDARI TALDEA

Asturias'eko guda-oiñetan.—Etengabeko fusil-otsa, ametraladora-zaŕapada ta artileri guduketa, Otero ta La Trocha'ko guda-esiak egoki astinduaz.

Zortzi falangetaŕ igaro dira gure aldera euren izkilu ta guzti.

Ostontzeko guda-oiñetako beŕi aipagaŕirik ez dago."

VALENCIA

Itxasgo ta Egako Zaingo'k atzo gabeko bederatziretan emandako agiria:

"Erdi-aldeko guda-oiñean.—Jadraque'ko bide-txabalean amaŕ belbil guagatu dituzte eta bultzi-geltokian, ainbat zamatutako belbil.

Mediterraneo itxas-aldean.—"Campomanes" itxas-ontzia, itxas-egazkiñez lagunduta, batetik bestera ibili da.

Castedelfel gaiñean, Barcelona-inguruetan, eta itxas-bastefetik lau milletara, eraman-ekaŕietako italiaŕ bat geureo olaldun bategana erdu da, baiña itxas-egazkin bat ikustean, igesari eman dio.

Tarragona gaiñean, lufetik amaŕ milletara geldirik zegon italiaŕ destroyer batek iges-bidea artu du itxas-egazkin bat ikustean. Bere biran egaka zebilen egazkin ofi ber antiaereokin su egi dio."

Irakuŕi GUDARI, Euzko-Gudaroztia'ren aldizkingi edeŕa.

JAUNGOIKOA ETA JAKITUNAK

Gauŕ goizean jazo yatana edestuten noyatzu, irakuŕle euzkotaŕa. Bilbao'ko "El Liberal" izpaŕingia irakuŕten egoan euzko-gasteakin alkaŕ egin dot. ¡Au tamalal esan neban neure kolkorako, euzkotaŕa, euzkeduna ta euzko-endearen izpaŕingirik kaltegiñena eskuetan...

Berbeak berbea dakaŕ-eta egoki ertxi unan esan neutsan:

—Euzkotaŕa ta euzkelduna zeu eta izpaŕingi ori eskuetan?

—Oŕek iñusentekeriak dira, erantzun eustan.

—Iñusentekeriak ez, jaŕdetsi neutsan.

Eta amaituten itxi barik, baŕiro:

—E... Jaungoikua eta Lagi-Zaŕa ta Lagi-Zaŕa ta Jaungoikua'z ia samarraño betela nago...

—Gixajoa... esan neutsan, Jaungoiko barik nora? Eta Lagi-Zaŕa, ez euzu ezpairik izan, euzkotaŕon zorion-ituŕia da.

—Jaungoikua... Jaungoikua... Nun da, baña, Jaungoiko ori, nun? Oŕetariko gauzarik ia iñok ez dau siñistuten: atsotxoren batzuk eta euren sakelak ¡ñon txakuŕez betetu gura daben baten batzuk baño ez.

—Galduta zagoz, gaste, erantzun neutsan miñez... galduta zagoz. Etukeŕia zara ta zin dagitzut gomutan izango zaitut auŕerantzean neure otoyetan.

—Eskeŕik asko, baña astia galduko ete-dozun bilduŕ naz. Izan nebazan, bai, neure ezpai-aldiak, baña... ¡akitunik geyenak sinesgeak zirala irakurtean, sorbaldara jaurti neban neure gurasoakandik edan neban siniskena. Iñok sinistutekotan jakitunak beaŕ. Eta oŕaitiño alderantzira da: kokoren batzuk baño ez dabe sinistuten.

—Baña, gizona, jaŕdetsi neutsan gaŕatz, Jaungoikua dala esateko jakituna izan beaŕik ez ba-da... Jaungoikua èdonun dakusgu: zugatz-oŕi bat azterkatzea naikoa da Jaungoikua dala ziguŕ jakiteko... gau izaŕatua so egin daroanak ezin ukatu dagi Jaungoikoa dala. Ludiko edeŕtasunak gogaŕtzea beste barik naiko da Jaungoitan bizita, gure etxeko kataŕak beste oŕen beste ez dot entzun: Sinistuteko jakituna izan beaŕ dala...

—Zuokin ezin ezpaitu da; prale ta abaderen batzun esanpean bizi zare; olakoxea da neure ama be. Itsu-itsuan matz-garauak lez tentelkeriak iruntsi.

—Zuzen zabiltz: gu itsu-itsuan galbitz ta zu eguzki-argitan. Eta oŕaitiño guk itsu-itsuan ibilita, izadiko atal guztietan dakusgu Jaungoikoa ta zuk eta zure antzekoak, eguzki-argitan bizita, gure etreko kataŕak beste ez dozue ikusten.

—Bai... ni itsu-itsuan ibiliko naz, baña ez onen itsu euren bizia ikasten igartu daben jakitun ugariak. Auxe berau iñostan lengo baten, landolako neure ankide batek: prale ta monjen atzera-auŕerea zala Jaungoiko-kontua...

—Ezagun dozu bai nortzuk diran zeure irakasle puŕukatuak: landolako ankidea... nor ete-da? zenbat ordu emon ete-dauz Jaungoiko-jakintzari buruz? Jakin egizu, gaste bein betiko esan neutsan azkenez ludia goraldu izan daben jakitunik geyen-geyenak Jaungoiko sinismendunak izan dirala. Ara Dennert ostelari edo protestante doiztaŕak diñoana: Irureun jakitunen erlejiño-zaletasuna ikasi dot eta egiz eurotatik beŕeun eta ogetalau SINISMENDUNAK ziran; garaikoetaik be banaka bat baño ez dira sinisgeak, gai oŕetzaz euren aburua argi azaltzen ez dabelako."

Jakin egizu, ba, gaste bein betiko Jaungoikua ez dala diñoenak edo baŕu baltzak edo iñusenteak dirala.

Gaŕaztasuna ikuŕan iŕi-baŕe malmutzak loratu eban gastearen espanak.

ASTITXE.

DIPLOMATIKO TA IZPIAZGOLARI

Valencia.—Reuter Izpaŕlari-Batza'k aiŕzen emon dabenez, bere agiri pilo au Franco'rentzat agiriak eruazan diplomatiko bat atxilotu dabe.

Ordezkari oŕi paxisten-alde izpiazgo-lanetan ibili da-ta Inglateŕa'ko Ordezkaritza'n gordetea nai izan dau.

Artu dautsezan agiriak gaŕantzitsuak eta gudezkin zer ikusi aundia dabenak dira.

ASTURIAS'KO GUDA-IZPAŔAK

Gijon. — Asturias'ko guda-oiñetan baketan egon dira.

Atzo jakingaŕi dan guda gorabera riŕ ez zan izan.

Paxistok zirkin aundirik ez dabe egin; erkaldaŕok baiña adi dagoz paxistok iñon ziŕika asi-agiñean, be.

Leon aldean erkaldaŕak guda-eki ñaldi bat egin dabe ta auŕera egin dabe; guda-toki gaŕantzitsuak euron du dabez.

ERKALDAŔEN EGAZKIÑAK GOGOŔENIK-GOGOŔEN

Madrid.—Beŕiro ere paxistaŕen artileriak uri nagusira jo ta su diarioutela, ogei lagun ilaz eta nakoa gelago zaurituaz, erkaldaŕen egazkiñak gogoŕenik-gogoŕen suagatu dituzte Madrid-inguruetako arerioaren guda-esiak. Egazkiñon suaketa bide. lau lagun jausi dira iŕotzik Cuatro Caminos'en.

Obusetako batek ipaŕ-amerikaŕen Konsul-Etxea ondatu du. Elengabean amabi egunez suagatzen jardun ondoren, urian 250 ildako baiño geiago izan dira.

LEKUAK GOGOŔTZEN

Valencia.—Celada aldean guda-toki ta luban giñan jardun dabe erkaldaŕok Celada eurondu ostean, paxistok erasoei eutsi al izateko.

Guda-gai asko artu dabe erkaldaŕok. Paxistok gogo-aulduta dagoz. Ikusketak egiten ibili diranak ikusi al izan dabenez, galtze aundiak izan ebezan paxistok.

Oŕ-emen ipiñita dagozan erkaldaŕen kañoiak Teruel Ego-Sorkaldean dagon Campillo eŕia suagatu dabe ta mende dauke.

Montoro de Isaba aldetik joalditxo bat asi eben paxistok, baiña poŕoi-eragin-arazo eutsen.

ITALIAŔ IZPAŔLARIAK ALEMANIA'RA

Milan.—Alemania'ko Gobernua'ren deiari jaramon egiñaz italiaŕ ogei izpaŕlari Alemania'ra duaz. Alemania'ko sailak zeaŕ ibiliko dira ta Alemania'n egongo dira aldi baten.

GRANADA'N BUŔUKA GOGOŔAK ETA AUŔERA

Almeria.—Atzo goizaldez erkaldaŕak joaldi baŕia asi eben Granada'ko sailetan.

Guda-toki egokiak eurondu osteas Socar menderatu eben erkaldaŕok.

Guda-oin geienetan joten dabe erkaldaŕok.

Erkaldaŕ egazkinlariak asko lagundu eutsen oiñezko gudariei auŕera kadea egin egien.

Guda-gai ta guda-tresna asko lagabezan bertan-bera iges egiterakoan.

TARTEKA-MARTEKA

Nazitarren larregikeri ta barrabaskeriak.-Valencia suagatzera egazkin bat.-Langillientzat sariak.-Ibarnegarai eta bere lagunak kartzelara jun nai ez.-Munduari birea egiten.

BELGICA'N ERKALDAŔEN-ALDE

Bruselas. — Erkaldaŕen alde mitin bat egin dabe ta mitin oŕetan Vandervelde'k itz egin eban.

ALKAŔEN LAGUN

Milan.—Erbeste-arazo Arduradunak Milan'go Azoka'ko Ordezkariei oturantzea edo banketea emon dautse. Beroŕek egin daben itzaldiari, erbestetaŕen izenez Turkia'ko Ordezkariak erantzun dautso.

MUNDUARI BIREA EGITEN

Brindizi.—Munduari birea egiten diñarduan egazkin bat uri oŕetako egazkin-zelaira jatxi zan. Gasolinaz ornidu ostean, egaztaka asi zan Brindisi'tik Constantinopla'ra osterea egiten asi zan.

UMERIK EZ

Londres.—Udal-Artezkaritza'n egazkiñen aurkako gordelekuak egiteko umeei beaŕera deitzea galerazo egin dabe.

AZPI-MATXIÑADEAREN JAKITUN

Buenos Aires.—Maiatzaren lenengoan asi beaŕ zan azpi matxiñadearen zertzeladen jakitun egin dora ertzaiñak.

NAZITAŔEN LAŔEGIKERI TA BAŔABASKERIAK

Ciudad Vaticano.—Eleiztaŕ aldizkare ta izpaŕingiei nazitaŕak jaŕi dautsezan eragozpen baŕi emoten dau "L'Observatore Romano"k. Alemania'ko eleizearen egoerari buruz Aita Santuak egin daben enziklikea argitaltzen dau.

Nazitaŕok Freda'ko eleiz-baŕutiko boletiña argitaltzea gebendu egin dabe; eleiz baŕuti oŕetan idoro dabezan Aita Santuaren enziklikak batu egin dabez ta enziklikeoi argitaldu daben irarkolea itxi.

VALENCIA SUAGATZERA EGAZKIN BAT

Madrid. — Valencia'ko izpaŕak aiŕzen emoten dabenez Sagunto aldetik etoŕi ta Valencia gaiñean ibili da egazkin bat. Egazkin-aurkako kañoiak tiroka ekin eutsenean, iges egin eban.

Iges ualа lau suaga jaurti ebazan eta jausterakoan leŕ egin eben itxasoan.

Beste bik uri oŕtzean leŕ egin eben. Itxas-gaiñean-zeaŕ juan zan egazkiñoi.

MADRID'GO ALKATE BAŔIA

Madrid.—Atzo goizean sortu eben Madrid'go Artezkaritza baŕia ta lenengo batzaŕa gobernadorea maipuruko zala egin zan.

Alkate Rafael Endbe izentatu eben; beroŕi emon eutsezan guztiak autarkiak. Zozialistea da.

LANGILIENTZAT SARIAK

Paris.—Sarietako arduradunak esan dau zartzaroagaitik emoten diran sariak iru mila milocko defecit egingo dabela. Origaitik sariok aztertutera biartuta dago. Baña iñoiz be ez dira sariok kenduko.

GUDA-IKASTOLA

Paris. — Pierre Cot'k Egazkin ikastola zabaldu dau.

BAKEAREN ALDE

Paris. — "Resemblement pour la paix" taldeak batzaŕ bat egin dau eta eŕi artetako batzaŕ nagusi batera dei egitea erabagi dau.

BELGIKA'REN AZKATASUNA

Bruselas.—Egin diran jardunaldien ondoren, atzo izenpetzeko zan Belgica'ren azkatasuna emoten daben frantzetaŕ eta ingelesen artean egindako agiria.

MINISTRUAK BATZAŔEAN

Paris.—Biar batuko dira ministruak batzaŕean Matignon hotelean, Parlamentuko tanetara biurtzeko bideak aztertuko ditue.

EŔUSITAŔ ERTILARIAK

Moscu.—Moscu'ko musikoak egin daben erestaldi baten, Lualik Berman, saspi urte dun mutikua eta Valya Nikifor Ova, bederatzi urtedun neskatuaren lanak jo ditue pianoz.

IBARNEGARAI ETA BERE LAGUNAK

Paris.—Ibarnegarai eta La Rocque paxistak alegin biziak egiten diardue espetxean ez sartzeko. Epaikarien auŕera aurkestu daben agiria ez dabe oneik ontzat artu.

Euren aldezleak be idazki luziak egin dabez epaiperatzearen aurka.